Aljebra linealaren teoriarekin jarraituz [36], matrize bat diagonalizatu daiteke, orduan matrize hori faktorizatuta adierazi. Hau egin daiteke  $V_{\text{propio}}$  bektore propioen matrizea eta balio propioen  $\lambda$  matrize diagonala erabiliz. Hori aplikatuz gero,  $CV_{\text{orokorra}}$  3.5. ekuazioan erakusten den moduan deskonposatuta geratuko da.

$$CV_{\text{orokorra}} = V_{\text{propio}} \cdot \lambda \cdot V'_{\text{propio}} \quad (3.5)$$

Hori egin ondoren, CSPak behar bezala lortzeko,  $\lambda$  matrizeko balio propioak handienetik txikienera ordenatzea beharrezkoa da (aurrerago gogoratuko dugu). Orduan, 3.5. adierazpenetik abiatuta,  $W$  zuritze-matrizea lor daiteke. Matrize bat zuritzean matrize hori eraldatzen da, bere kobariantza-matrizea  $I$  identitate-matrize bat izan dadin (diagonaleko elementu guztiak 1 izango dira, eta gainerakoak 0). Hemen, zuritze-matrizea  $W = \sqrt{\lambda^{-1}} \cdot V'_{\text{propio}}$  da. Honela izanda, zuritze transformazioa  $CV_{\text{orokorra}}$ -ri aplika daiteke, haren balio propioen matrizea  $I_{\text{propio}}$  identitate-matrizea izan dadin (3.6. ekuazioa).

$$CV_{\text{orokorra}} = W \cdot I_{\text{propio}} \cdot W' \quad (3.6)$$

Hori jakinda, eta  $CV_{\text{orokorra}}$ -k mota guztiako mugimenduei buruzko informazioa duela gogoratuz (gure kasuan bi mugimendu mota), ondoriozta

### 3.2. SEINALE FISIOLOGIKOAK ETA EZAUGARRIEN ATERATZEA

---

daiteke balio propioen  $I_{propio}$  identitate-matrizea bi mugimendu-moten balio propioen matrizeen batura dela. Premisa horretan oinarritura, bi mugimendu motetako kobariantza-matrizeak 3.7. ekuazio-sisteman bezala adieraz daitezke,  $CV_{orokorra}$ -rako erabili zen  $W$  zuritze-matrise berdina erabiliz.

$$\begin{aligned} S_{mota-1} &= W \cdot CV_{mota-1} \cdot W' \\ S_{mota-2} &= W \cdot CV_{mota-2} \cdot W' \end{aligned} \quad (3.7)$$

Geroago,  $CV_{orokorra}$ -rekin egindakoaren antzera,  $S_{mota}$  matrizeetako bakoitzak  $\lambda_{mota}$  balio propio matrize berri bat emango du, identitate-matrize baten ezberdina izango dena (kontuan izan  $W$  zuritze-matrizeak soilik  $CV_{orokorra}$  matrizea zuritzen duela). Hala ere, transformazio horretik ateratzen den  $B$  bektore propioen matrizea berdina izango da bi mugimendu motentzat.

$$\begin{aligned} S_{mota-1} &= B \cdot \lambda_{mota-1} \cdot B' \\ S_{mota-2} &= B \cdot \lambda_{mota-2} \cdot B' \end{aligned} \quad (3.8)$$

Hau eginez, mugimendu mota bakoitzerako transformazioen eta matrize orokorraren arteko erlazioa aurkitzea posible egiten da. Erlazio hori 3.9. ekuazioa adierazi da.

$$I_{propio} = \lambda_{mota-1} + \lambda_{mota-2} \quad (3.9)$$

Azkenik, 3.8. ekuazio-sistematik eta 3.9. ekuaziotik abiatuta, ondoriozta daiteke  $\lambda_{mota-1}$  balio propiorik handiena duen  $B$  matrizeko bektore propioak,  $\lambda_{mota-2}$  osagarrizko balio propio bat izango duela,  $\lambda_{mota-1}$ -eko balioarekiko ahalik eta kontrakoena izango dena. Era berean,  $\lambda_{mota-2}$  baliorik handienak osagarrizko  $\lambda_{mota-1}$  baliorik txikirena sortuko du. Orain, gogoratu behar 3.5. ekuazioaren ondoren,  $\lambda$ -ren balio guztiak handienetik txikienera ordenatu zirela. Beraz,  $B$ -ren bektore propioak ere ordenatuta egongo dira. Honek esan nahi du  $B$ -ren hasierako eta amaierako bektore propoiak mugimendu mota biak euren artean bereizteko baliogarrienak izango direla.

Puntu honetara iristean, propietate hori aprobetxa daiteke eta imajinazio motorreko saiakuntza bakoitzaren  $E$  matrizea eraldatu daiteke kanalen proiekezioak dituen  $Z$  matrize bat lortzeko.  $Z$  matrizeko proiekzio guztiak ordenatuta egongo dira mugimendu mota biak euren artean ezberdintzeko duten adierazgarritasunaren arabera. Horretarako,  $Q$  proiekzio-matrizea erabiltzen da, 3.10. ekuazioan erakusten den bezala.

$$Z = Q \cdot E \rightarrow \text{being } Q = (B' \cdot W)' \quad (3.10)$$

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

$Q'$  matrizearen zutabei patroi espazial komunak (CSP) deritze, eta denboran zehar aldatzen ez direnez erabilgarriak dira EEG sarrerak bi mugimendumoten arteko bereizketa egiteko duten erabilgarritasunaren arabera antolatzeko.

Garrantzitsua da aipatzea hemen azaldutako CSP erauzte-metodoa klase bitarreko problemetarako soilik balio duela. Hala ere, CSP metodoak klase anitzeko egoeretan aplikatzeko moduak badaude, [37]n edo [38]n egiten duten bezala.

- **Ezaugarri morfologikoak eta estatistikoak:** kapitulu honetako beste seinale fisiologiko askorekin gertatzen den bezala, seinalearen morfologia-rekin lotutako ezaugarriak ateratzea normala da ere, hala nola seinalearen balio maximo eta minimoak, batezbesteko tentsioa, seinalearen potentzia, RMS balioa, seinalea zerotik pasatu den aldien kopurua eta abar.

#### **3.3. Fuzzy-logika (logika lausoa)**

Fuzzy-logika edo logika lausoa konputazio adimentsuaren barneko kontrol-estrategia bat da, eta, citerefAndujar2014n adierazten den bezala, asko erabili da identifikazio problemetarako. [39]k aurkeztu zuen lehenengo aldiz eta hainbat identifikazio problemetarako erabili da. Atal honetan, logika lausoko sistema baten zatiak aztertuko dira. Lehenengo azpiatalak, 3.3.1.k, sarrera eta irteerako menbre- sia-funtzioak nola diseinatzen diren azalduko du. Ondoren, 3.3.2. Azpiatalak sarrerako menbresia-funtzioekin lotzeko erabiltzen diren arau-sistemak azalduko ditu. Azkenik, defuzzifikazio fasea 3.3.3. Azpiatalean aurkeztuko da. Defuzzifikazio fasean, sistemak inferentzia-erregelean bidez ezarritako erlazioei irteera balio bat emango dizkie.


Logika lausoa batzuetan ulertzeko zaila den kontrol estrategia denez, ulermenaren mesedetan, atal hau azaltzeko dutxa baten logika lausoko kontrolaren adibidea erabiliko da.

##### **3.3.1. Menbresia-funtzioak**

menbresia-funtzioak (MF) logika lausoko sistema zatirik garrantzisuenetakoak dira, MFen bidez aldagaien balioak erlazionatzen baitira kontrol egoera edo estimazio maila ezberdiniek. MFek sarrerako aldagaien definizioetako anbiguotasunekin moldatzeko aukera ere ematen dute, definiziorako hizkuntza normaleko terminoak erabiliz. Adibidez, dutxako uraren tenperatura kontrolatzeko, erabilitzaile batek “34°C” tenperatura “hotza” bezala defini dezake eta “40°C” “beroz” bezala. Baino zer gertatuko zen tenperatura 37°C-koa denean? Termino ezberdin biren artean egon liteke, neurri batean “epel” terminoan eta beste neurri batean “beroz” terminoan. Logika lausoko MFek adibide honen antzera funtzionatzen dute, eta, ondorioz, oso indartsuak dira aldagai bat definitzeko mugak argi ez dauden kasuetan.

### 3.3. FUZZY-LOGIKA (LOGIKA LAUSOA)

Beraz, MFak aldagaien balioak eraldatzeko erabiltzen dira, makinek ulerzten duten domeinutik, “crisp” domeinua ingelessez, pertsonek erabiltzen dugun eremu linguistikora bihurtzeko. Bihurketa hori egiteko, beharrezkoa da “crisp” balio tarte bat definitzea, zeineri aldagai baten hizkuntza-termino zehatz bat egokituko zaion. Adibidez, aurreko adibidean, esan daiteke [30,34]°C tartea “hotz” terminoari dagokiola erabat, eta, 34 °C-tik 36°C-ra, esan daiteke uraren tenperatura neurri batean “hotza” dela eta bestean “epela” dela. Konbertsio horretarako MF-ek hainbat forma har ditzakete: zuzena, triangeluarra, trapezoidal, gaussiarra, etab. 3.13. Irudian ageri den bezala, aurreko tenperaturen adibidea irudikatzen duena, MF-en arteko trantsizioen zakarkeria alda daiteke MF-entzat forma desberdinak hautatuz.



**3.13. Irudia.** MFak trapezoidalak eta triangeluarrak dira goiko aldean; beheko aldean, berriz, gaussianoak eta sigmoidalak dira.

Aldagaiak “crisp” eremutik eremu lausora edo linguistikora aldatzeko prozesu hori kontrolatu edo estimatu behar diren sistemako sarrera guztiei aplikatu behar zaie. Garrantzitsua da aipatzea menbresiaren balioak normalizatu egi-ten direla, eta, beraz, aldagaietik izan ahal duten menbresia baliorik altuena 1 dela hizkuntza-termino jakin batentzat. Dena dela, logika zehaztugabeak anbiguotasunak maneiatzeko aukera ematen duenez, baliteke aldagai bat termino batena izatea erabat, eta aldi berean beste termino batena ere bai (adibidez, 3.13. Irudian 34 °C edo 38 °C inguruan gertatzen den bezala). Kontuan izan, halaber, MFak sistemaren sarreretarako ez ezik, sistemaren irteeretarako ere definitu behar direla.

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

**3.3. Taula.** Dutxa kontrolatzeko erregela sistema.

IF... AND IF... THEN... erregela sistema		
Ur tenperatura	Ur kantitatea	Eskuleku mugimendua
Hotza	Gutxiegi	↗
Hotza	Ondo	→
Hotza	Gehiegi	↘
Epela	Gutxiegi	↑
Epela	Ondo	=
Epela	Gehiegi	↓
Beroa	Gutxiegi	↖
Beroa	Ondo	←
Beroa	Gehiegi	↙

#### **3.3.2. Erregela sistema**

Batzuetan, sistemaren sarrera eta irteeren arteko erlazioa definitzea zaila izaten da. Kasu horietan, oso erabilgarria izaten da giza ezagutzan oinarritutako erregela multzo bat definitzea [40]. Beraz, aldagai guztiak hizkuntza-eremura eraldatu ondoren, aldagaien arteko eta sistemak irteera bezala emango duen estimazio edo kontrol-ekintzaren arteko erlazioa ezartzeko momentua da. “IF... THEN...” (“BALDIN... ORDUAN...”) arauen bidez ezartzen dira erlazio horiek. Hala ere, erlazioak ezartzean, ez dago mugarik kombintatuko diren sarrerako aldagaien kopuruan. Aldagai berri bat erantsi nahi bada, baldintza kateari “OR” edo “AND” eragile logiko bat eranstearekin nahiko izango da (“EDO” eta “ETA” eragile logikoak). Batzuetan “NOT” eragile logikoak ere erabil daitezke.

Dutxa batzuek aginte eskuleku bakarra dute, tenperatura eta ur-kantitateak kontrolatzen dituena. Beraz, eskuleku posizioa bi sarrera-aldagaien araberakoa izango da. Honela izanda, eskulekuak balbula ireki edo itxi dezake, eta, aldi berean, ura hotzagoa edo beroagoa ateratzeko posizioetara eraman daiteke. Beraz, egoera honetarako, 3.3. Taulako erregela-sistema defini daiteke.


3.3. Taulako adibiderako, hau hartu da kontuan: uraren tenperatura ez-kerretik eskuinera handitzen da eta eskuleku gorantz mugituz ur-kantitatea handitu egiten da. Beraz, gizakiek egingo zuten kontrolaren antzekoa egin daiteke aldagaiak ”IF... AND IF... THEN...” erregelen bidez erlazionatuz.

Konbinazio mota hauiek aplikatzen direnean, sarrerako aldagaien anbiguotasunak dituztenez, arau bat baino gehiago egon daitezke aktibo neurri batean. Beraz, beharrezko da baldintza azpimultzo bakoitzetik lortuko diren azalerak banan-banan kalkulatzea. Kalkulu horri dagokionez, erregeletatik aterako diren azaleren balioek erabili diren eragilearen influentzia izango dute. Alde batetik, “AND” eragileek, baldintza katearen sarrera guztien artean, menbresia-balio

### 3.3. FUZZY-LOGIKA (LOGIKA LAUSOA)

minimoa duen sarrerak zehaztutako azalera emango dute emaitza bezala. Bestalde, “OR” eragileek menbresia-balio maximoko sarrerak definitutako azalera emango dute emaitza gisa.

Argiago ulertzeko, dutxako adibidean, uraren temperatura 0,6 “bero” balitz eta ur kopurua 0,8 “gutxiegi” balitz, baldintza erregelen emaitza desberdina izango litzateke erabilitako eragile logikoaren arabera. “AND” bat erabiliz gero, sortutako azaleraren balio maximoa 0,6 izango zen; “OR” bat erabiliz gero, berriz, 0,8 izango litzateke (ikus 3.14. Irudia irudikapen grafikorako).



**3.14. Irudia.** Irteeraren azalerako menbresia-balioa aukeratutako eragile logikoaren araberakoa da.


3.14. Irudian ikus daitekeenez, sarrera-aldagaiet ez dute beti %100eko menbresia. Hori gertatzen denean, seguruenik, beste erregela batzuk ere menbresia-balio txikiagoa batekin aktibatuko dira. Hori dela eta, arau desberdinak azalera desberdinak eman ditzaketenez, ezinbestekoa da azalera guztiak bateraketa egitea azkenengo urratsera pasatu aurretik, defuzzifikazioa. Azkenengo bi fase hauek hurrengo 3.3.3. Azpiatalean azalduko dira.

#### 3.3.3. Azaleren bateraketa eta defuzzifikazioa

Defuzzifikazioaren aurretik, logika lausoko sistemak bateratutako irteera orokor bat lortu behar du. Horretarako hainbat metodo daude, hala nola “max” eragilea edo batuketaren metoda erabiltzen duen agregazioa, beste batzuen artean. Bi metodoek abiapuntu bera dute: irteera orokor bat lortzea proposatzen dute, erregela azpimultzo bakoitzak emandako azalerak gainezarriz. Hala ere, amaitza biren azalerak jainezartzen direnean, metodo biek modu ezberdinan jokatuko dute. Alde batetik, “max” eragilearen agregazioak bakarrik menbresia-balio handieneko azalera hartuko du kontuan. Bestalde, batuketaren

### 3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK

metodoak gaine- zarritako azalerak gehituko ditu, eta ondorioz, azalera handiago bat lortuko du. 3.15. Irudian erakusten du nola emaitza orokorra aldatzen den erregela multzoen emaitza partzialak metodo desberdinak bidez bateratzen direnean. Ondorioz, azken emaitzeko azalera aldatzen denez, dutxaren esku-lekua kontrolatzeko irteera-tentsioa ere aldatu egingo litzateke desfuzzifikazio fasean.



**3.15. Irudia.** Baldintza multzo bakotzeko emaitza partzial berdinak izanda, agregazio-metodo desberdinek sistemaren emaitza orokorra aldatzen dute.

Azkenik, irteera bateratua kalkulatu ondoren, inferentzia-sistemak irteera osoa jatorrizko “crisp” domeinura bihurtu behar du berriro. Urrats horri defuzzifikazioa deritzo. Zenbait era ezberdin daude defuzzifikazio egiteko [40], grabitate-zentroa kalkulatzeko bezalakoa (centre of gravity, COG) edo maximoen batezbestekoa balioa (mean of the maximums, MOM) kalkulatzekoarena, besteak beste [41].

4. Kapituluan aurkeztutako lanak COG metodoa erabili zuen. Metodo hau defuzzifikazioa egiteko metodorik erabiliena, eta, bere izenak adierazten duen bezala, emaitza bateratuaren grabitate-zentroa kalkulatzean oinarritzen da. Emaitza bateratuari 3.11. ekuazioa aplikatu behar zaio grabitate zentroa lortzek, non  $\mu_{i-k}$  emaitza bateratua konposatzen duten  $N$  irteera MF bakotzak duen balio maximoa adierazten duen, eta  $\chi_i$ -k, berriz,  $i$ . MFak hartutako “crisp” balioen


### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

tartearen erdiko balioa adierazten duen.

$$irteera_{crisp} = \frac{\sum_{i=1}^N \mu_i \cdot \chi_i}{\sum_{i=1}^N \mu_i} \quad (3.11)$$

Adibidez, 3.15. Irudiko “max” eragilearen adibidearekin jarraituz eta 3.16. Irudiko balioak emanez, “crisp” irteeraren balioa 3.12. ekuazioan erakusten den moduan kalkulatuko litzateke.

$$\begin{aligned} irteera_{crisp} &= \frac{\frac{30+25}{2} \cdot 0.8 + \frac{27+22}{2} \cdot 0.2}{0.8+0.2} = \\ &= \frac{27.5 \cdot 0.8 + 24.5 \cdot 0.2}{0.8+0.2} = \frac{22+4.9}{1} = 26.9V \end{aligned} \quad (3.12)$$



**3.16. Irudia.** COG defuzzifikazio metodoak 26.9V emango ditu “crisp” irteera bezala dutxaren eskulekuaren mugimendua kontrolatzeko (grabitte zentroa gorri markatu da).

## 3.4. Ikasketa automatikoa

Edozein helburutarako datuak interpretatzen saiatzean, batzuetan, gizakiek ezin dituzte zentzuzko patroirik ezarri. Hala ere, datu horiek ikusteko gai ez badi- ra ere, datu horien analistek badakite (edo, behintzat, susmatzen dute) ezku- tuan badirela erlazioak eta patroia datuetatik informazio baliotsua ateratza ahalbidetzen dutenak. Zorionez, ikaskuntza automatikoari esker, automatikoki aurki daitezke patroi horiek, algoritmoek datuen analisian aplika dezaketen abstrakzio-maila handiagoari esker. Alde batetik, algoritmoa eremu jarrai bat- tean definitzen den aldagai bat aurrikusteko erabiltzen bada, algoritmoak erre- gresio bat egiten duela esaten da. Bestalde, problema eremu diskretu finitu bati badagokio, algoritmoa sailkatzailea dela konsideratzen da.

Algoritmo batek datuetatik nola ikasten duenaren arabera, ikasketa automati- tikoko bi ikuspegi nagusi bereizten dira: gainbegiratutako ikasketa-algoritmoak

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

eta gainbegiratu gabeko ikasketa-algo- ritmoak. 3.4.1. eta 3.4.2. Azpiatalek bi algoritmo mota hauen paradigmari garrantzitsuenak aurkeztuko dituzte. On-doren, dokumentu honek 3.4.3. Azpiatalean algoritmoak balioztatzeko metodoi buruzko informazioa emango du. Azkenik, sailkatzailearen errendimendu metrika desberdinak aurkeztuko dira 3.4.4. Azpiatalean.

#### **3.4.1. Gainbegiratutako ikasketa**


Gainbegiratutako ikasketa-algoritmoak erregresio bat egiteko edo sailkatzen ikasteko kanpoko laguntza behar duten algoritmoak dira. Zentzu horretan, kanpo laguntza algoritmoari ikasketako instantziak zein klaseri dagozkien esatea besterik ez da. Hori jakinda, gainbegiratutako ikaskuntza-algoritmoak funtasioak ezartzeko gai dira sarrerako datuak irteetara mapatzeko.

Beraz, gainbegiratutako ikasketa-algoritmo guztiak datuak behar dituzte entrenatzeko eta euren errendimendua hobetzeko. Algoritmo baten entrenamendua iterazio-prozesu bat da, non iterazio bakoitzean algoritmoak datu kopuru jakin bat jasotzen duen sarrera gisa. Algoritmoa elikatzeko erabiltzen diren sarrera-datu horiei instantzia deitzen zaie. Datuez elikatu ondoren, algoritmoa datuetako patroiak igartzen saiatzen da, eta instantzietako datu-patroi komunak ezagutzeko erabiltzen duen eredu matematikoa aldatzen du. Hortaz, behar adina datu izateak garrantzi handia du ikasketa automatikoa erabiltzean; nahikoa datu ez badago, algoritmoaren entrenamendua eskasa izango da eta halakoak izango dira emaitzak. Dena den, algoritmoaren gainelikadura ere negatiboa da, eta, beraz, garrantzitsua da oreka bat aurkitzea entrenamendurako erabilitako instantzien kopuruan.

Geroago, algoritmoak entrenatu ondoren, algoritmoek beste fase batetik pasatu behar dute bizitza errealeko aplikazio batean erabili aurretik: testa. Entrenamendurako datu guztiak erabiliko balira, eta algoritmoa testatzeko entrenamenduko instantzia bat erabiliko balitz, orduan emaitza ona izango zen beti algoritmoak jadanik instantzia denak ezagutuko lituzkelako. Dena den, testa fidagarria izateko, oso garrantzitsua da datuak gordetzea testan soilik erabiltzeko; izan ere, bizitza errealeko egoera ez izatearen segurtasunean, algoritmoa etorkizuneko egoera erreal batean erabiltzeko egokia dela frogatuko da. Datuen 2/3 entrenamendurako erabiltzea eta 1/3 entrenamendutik lortutako eredu probatzeko gordetzea, oso zabalduta dagoen planteamendua da. Gainera, test-fasean sartu aurretik, ohikoa da entrenamendu-datuuen parte bat entrenatutako parametroak baliozketzeko erabiltzea. Hala ere, datuak entrenamendurako eta testarako banatzeko beste modu batzuk daude, 3.4.3.. Azpiatalean sakonago azalduko direnak. 3.17. Irudian, ikasketa gainbegiratua erabiliz datu-analisia problema baten oinarritzko planteamenduaren diagrama ageri da.

Literaturan badira hainbat gainbegiratutako ikasketa-algoritmo ezbedin ([42], [43]): Naive Bayes (NB) sailkatzaileak, multi-layer perceptronak (MLP), sostengu-bektoreen makina (SVM), hurbileneko K bizilagunak (K-nearest neighbours, K-NN), erabaki-zuhaitzak (DT) eta sailkatzaile-multzoak, besteak beste. Algoritmo horietako bakoitza ikuspegi matematiko ezberdin batean oinarritzen da sailkapen-lanak betetzeko.

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA



**3.17. Irudia.** Datu-analisi problema baten oinarritzko planteamendua.

#### Naive Bayes (NB)

Sailkapen-metodo hau baldintzapeko probabilitateko Bayesen teoreman oinarritzen da. Teoremaren adierazpen matematikoa 3.13. ekuazioan aurkezten da, non  $P(A | B)$  eragingaiak  $B$  baldintza izanda  $A$  gertatzeko probabilitatea adierazten duen. Gainera,  $P(B | A)$  eragingaiak,  $B$  gertatzeko probabilitatea adierazten duen  $A$  baldintza gisa ezarrita. Eta bukatzen,  $P(A)$  eta  $P(B)$ , hurrenez hurren,  $A$  eta  $B$  gertatzeko probabilitateak dira.

$$P(A | B) = \frac{P(B | A) \cdot P(A)}{P(B)} \quad (3.13)$$

Sailkatzaile hauek, fenomeno bat gertatzeko probabilitatean eragina duten aldagaien arteko independentzia onartzean oinarritzen dira. Beraz,  $A$  fenomenoan  $F_1$  eta  $F_2$  aldagai independenteek eragina badute, onar daiteke  $P(A | F_1, F_2) = P(A | F_1) \cdot P(A | F_2)$ . dela.

Beraz, aldagaien arteko independentzia eta 3.13. ekuazioko adierazpena baliokotzat hartuta, klase jakin bateko kide izateko instantzia batek izango duen probabilitatea kalkulatzen duen eredu estatistikoa hurrengo espresioaren bidez

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

adierazten da.

$$\begin{aligned} P(A | F_1, F_2, \dots, F_n) &= \frac{P(A) \cdot P(F_1, F_2, \dots, F_n | A)}{P(F_1, F_2, \dots, F_n)} = \\ &= \frac{P(A) \cdot P(F_1 | A) \cdot P(F_2 | A) \cdot \dots \cdot (F_n | A)}{P(F_1, F_2, \dots, F_n)} \rightarrow \quad (3.14) \\ \rightarrow P(A | F_1, F_2, \dots, F_n) &= \frac{P(A)}{P(F_1, F_2, \dots, F_n)} \cdot \prod_{i=1}^n P(F_i | A) \end{aligned}$$


3.14. adierazpena ezagututa, instantzia batek klase bakoitzean egoteko izango dituen probabilitateak kalkula daitezke. Azkenik, probabilitate horiek guztiak kalkulatuta, klase horren kidea izateko probabilitaterik handiena izan zuen klaseari egokituko zaio instantzia hori.

#### **Multi-layer perceptron (MLP)**

MLPk sare neuronal artifizial (artificial neural network, ANN) mota bat dira, ikasketarako atzerahedapenaren printzipioan oinarritzen dena. Sare neuronal biologikoak bezala, ANNak hainbat prozesamendu-unitatez konposatuta daude, euren artean konektatuta daudelarik. Bi neuronen arteko konexio bakoi-tzari pisu bat egokituko zaio. Pisua hauen balioa ANNaren entrenamenduan zehar aldatuko da, konexio horrek sailkapena edo erregresioa ondo egiteko duen garatziaren arabera. Hala, konexioko pisuak aldatzeko entrenamendu-instantzien klasea ezagutu behar dutenez, MLPak gainbegiratutako ikasketa-algoritmoen taldean sartzen dira.

MLP bat eraiktzerakoan badira parametro batzuk erabaki behar direnak, hala nola geruza kopurua. Honela izanda ere, MLP bat eraikitzeko gutxienez hiru geruza behar dira: sarea elikatzeko erabiltzen den sarrera-geruza, sailkapenaren edo erregresioaren emaitzak ematen dituen irteera-geruza eta aurreko bi geruzak lotuko dituen geruza ezkutu bat (edo gehiago). Horrez gain, MLPak aurrera-likadurako ANN familiari dagozkie, hau da, informazioa sarreretatik irteeretara baino ez da igarotzen, eta ez dago unitateen arteko atzeraelikadura-begiztarik. 3.18. Irudian, mota bakoitzeko geruza bat (sarrera, ezkutua eta irteera) duen MLP baten adibidea jaso da.

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA




**3.18. Irudia.** Sarrerako eta irteerako geruza bakarra dituen MLP sare neuronala.

Atzerahedapen-algoritmoek nola funtzionatzen duten jakiteko, unitate edo neurona baten barne-egitura behar bezala ulertzea beharrezkoa da. Adibidez, 3.18. Irudiko 6. neuronari erreparatz gero, erraz ondoriozta daiteke neurona honek bere sarrera guztiak sarrerako geruzako nodoetara konektatuz lortzen dituela. Hala ere, neuronaren arteko conexioak ez dira simpleak. Horren ordez, conexioei pisu bat egokitzan zaie. Horrek esan nahi du aurreko edozein neuronaren irteera-balioa biderkatu egingo dela konexio zehatz horren pisuarekin hurrengo geruzako neuronan sartu baino lehen. Hau ikusteko 3.19. Irudian lehenago aipatutako 6. neurona horren irudikapen handitua eman da. Gainera, bada neuronaren sarrera gisa erabiltzen den beste balio bat,  $\Theta$ , neuronaren alborapena deritzona (“bias”-a ingelesez). Azkenik, haztatutako sarrerak guztiak eta alborapena batu ondoren, lortutako balioa aktibazio-funtzio deritzonean sartzen da. Aktibazio-funtzioak sarreren guztien batura irteera-balioan transformatzen duen funtzioa da (ondoren, hurrengo geruzetako sarrera guztiatarako sarrera gisa erabiliko dena). Tradizionalki, MLPek funtzio sigmoidala erabiltzen dute, ez lineala eta definizio eremu osoan differentziagarria dena. Horri esker, MLPek problema ez-linealak ebatz ditzakete.

### 3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK

---



**3.19. Irudia.** 6 neuronaren barne-egitura. Aurreko geruzako neuroneki-ko loturak hiztatuak dira.

Neuronen barne-egitura azaldu ondoren, orain MLParen entrenamenduan eta atzerahedapenean sakondu daiteke. Hasteago, MLParen topologia aukeratu behar da. Bigarren urratsean, berriz,  $\omega_{ij}$  pisuen eta  $\Theta_{ij}$  alborapenaren balioak hasieratu behar dira. Normalean, [-1,1] tarteko balio aleatorio bat ematen zaie.  $l$  ikasketa-tasa ere (0,1) tartean finkatu behar da. Azkenik, gainbegiratutako algoritmo guztiak bezala, MLPak iteratiboki entrenatu behar du.

Ulergarritasunaren mesedetan, entrenatzeko prozesua bi bloke sekuentzialean banatuko da: sarrera balioak aurrera hedatzeko prozesua 1. Algoritmoan emango da, eta, gero, atzerahedapena 2. Algoritmoan aurkeztuko da. Algoritmo hauek geruza espezifiko batean zentratzen dira,  $i$  eta  $k$ , hurrenez hurren, analizatutako neuronarekiko, aurreko eta ondorengo geruzetako neurona baten zenbakiak dira.  $I$  eta  $K$  geruza horietako unitate edo neuronen kopurua adierazten dute. Azkenik,  $j$  eta  $J$  esanahi berdina dute, baina algoritmoa zentratzen ari den geruzarako. Formulazio matematiko konplexua duten arren, algoritmo hauen aplikazioa dirudien baino errazagoa da. Xehetasun handiagoko azalpen batekin batera, zenbakizko adibide argigarri bat aurki daiteke [44].

Aipatu behar da MLPa ANNen oinarritzko forma dela. Hala ere, badira MLParen aldaera asko, arazoak beste ikuspegi batetik ebazteko, NN mota berriak sortzen dituztenak. Adibidez, MLPen oso antzekoak diren “Radial Basis Function” sareek (RBF), oinarri erradialeko funtziok erabiltzen dituzte aktibazio-funtziorako, funtzio sigmoidala erabili beharrean [45].

Bukatzeko, erabiltzeko zailak ez diren arren, ANNek nola klasifikatzen duten ulertzea zaila da. Gainera, algoritmo hauen entrenamendua konputazio-karga handikoak dira eta denbora asko behar dute. Izan ere, ikasketaren konbergentzia bermatuta ez dagoenez, praktika arrunta da entrenamendurako iterazio kopururako limite bat ezartzea. Hala ere, azken urteetan teknika berriak aurkitu dira sareen entrenamendua nabarmen azkartzeko, GPUak aljebra linealeko kalkuluak egiteko erabiltza bezalakoak.

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

---

**Algorithm 1** Sarrerak aurrera hedatzeko prozesua eta neuronen irteeren kalkulua.

---

- 1: **for** sarrera unitate bakoitzeko **do**
- 2:    $Irteera_i = Sarrera_i$ ;
- 3: **end for**
- 4: **for** ezkutuko geruzako neurona bakoitzeko **do**
- 5:   Sarreren batukaria lortu neuronaren sarrera balioa jakiteko:

$$Sarrera_j = \Theta_j + \sum_{i=1}^I Irteera_i \cdot \omega_{ij}$$

- 6:   Neuronaren irteera balioa lortu aktibazio-funtzio sigmoidala erabiliz:

$$Irteera_j = 1/(1 + e^{-Sarrera_j})$$

- 7: **end for**
  - 8: **for** irteera unitate bakoitzeko **do**
  - 9:   Sarreren batukaria lortu 5. lerroko formula bera erabiliz.
  - 10:   Neuronaren irteera lortu 6. lerroko formula bera erabiliz.
  - 11: **end for**
- 

**Algorithm 2** Atzerahedapen algoritmoa.

---

- 1: **for** irteera unitate bakoitzeko **do**
- 2:   Errorea kalkulatu:

$$\mathcal{E}_j = Irteera_j \cdot (1 - Irteera_j) \cdot (Class_{instance} - Irteera_j)$$

- 3:   Pisuak eguneratzeko gehikuntza kalkulatu:  $\Delta\omega_{ij} = l \cdot \mathcal{E}_j \cdot Irteera_i$
- 4:    $\omega_{ij}$  pisuak eguneratu:  $\omega_{ij-new} = \omega_{ij} + \Delta\omega_{ij}$
- 5:   Neuronaren alborapena eguneratzeko gehikuntza kalkulatu:  $\Delta\Theta_j = l \cdot \mathcal{E}_j$
- 6:    $\Theta_j$  alborapena eguneratu:  $\Theta_{j-new} = \Theta_j + \Delta\Theta_j$
- 7: **end for**
- 8: **for** ezkutuko geruzako neurona bakoitzeko **do**
- 9:   Errorea kalkulatu:


$$\mathcal{E}_j = Irteera_j \cdot (1 - Irteera_j) \cdot \sum_{k=1}^K \mathcal{E}_k \cdot \omega_{jk}$$

- 10:   Pisuak eguneratzeko gehikuntza kalkulatu:  $\Delta\omega_{ij} = l \cdot \mathcal{E}_j \cdot Irteera_i$
  - 11:    $\omega_{ij}$  pisuak eguneratu:  $\omega_{ij-new} = \omega_{ij} + \Delta\omega_{ij}$
  - 12:   Neuronaren alborapena eguneratzeko gehikuntza kalkulatu:  $\Delta\Theta_j = l \cdot \mathcal{E}_j$
  - 13:    $\Theta_j$  alborapena eguneratu:  $\Theta_{j-new} = \Theta_j + \Delta\Theta_j$
  - 14: **end for**
-

### 3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK


#### Sostengu-bektoreen makina (SVM)

Sostengu-bektoreen makinen (SVM, support vector machine ingelesez) algoritmoak printzipio erraz batean oinarritzen dira, bi klaseren arteko bereizketa marjinala maximizatzean. Azalpenerako, 3.20. Irudian adibide bat emango da bi dimentsioko espazio baterako. Hala ere, grafikoki ikustea ezinezkoa den arren, printzipio berak aplika ahal zaie dimentsio anitzeko kasuei.



**3.20. Irudia.** Kasu honetan bi klaseetako instantziak linealki bereiz daitezke.

3.20. Irudiko adibidean, oso argi dago bi klaseetako instantziak oso erraz bereiz daitezkeela. Horrelako kasuetan, SVM algoritmoek datu-multzoko klaseak hobekien bereizten dituen  $n - 1$  dimentsioko hiperplanoa kalkulatzen dute. Adibideko espazio bidimentsionalaren kasuan, hiperplanoaren dimentsioa  $2 - 1 = 1$  izango litzateke, hau da, lerro zuzen bat (3.21. Irudian ikusten den bezala).



**3.21. Irudia.** Bi dimentsioko espazio batean, instantziak lerro zuzen batetik bereiz daitezke linealki. Kasu optimoan, klaseen arteko tarte maximoa da, hau da,  $d_1 = d_2$  denean.

Badira infinitu hiperplano klaseak bereizteko erabil daitezkeenak, baina klase bateko instantzia hurbilenaren eta hiperplanoaren arteko distantzia maximiza-

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

---

tzen duen irtenbide bakarra dago. Bi dimensioko espazio batean, hiperplano-rik onena bi klaseen arteko tarte handienaren erdiko lerroa da (3.21. Irudian,  $d_1 = d_2$  egiten duen lerroa da). Hiperplanotik hurbilen dauden instantziei “sostengu-bektore” deritze (3.21. Irudian gorriaz nabarmenduta).

Analitikoki, sostengu-bektoreen arteko distantzia maximizatzen duen marjin maximoko hiperplanoa [46] defini daiteke planen Hesse forma normalaren antzeko ikuspegia erabiliz (3.15. ekuazioa).

$$\vec{\omega} \cdot \vec{x} - b = 0 \quad (3.15)$$

Geometriaren esparruko 3.15. ekuazioa gogoratuz,  $\vec{\omega}$  hiperplano berriaren bektore normalari dagokio,  $b$  hiperplano horretako puntu bat eta  $\vec{x}$  instantziaren ezaugarriei. Hala ere, hemen ez dago  $\vec{\omega}$  normalizatu beharrik. Hiperplano hori 3.21. Irudiko lerro jarraituari legokioke.

Formula analitiko hori erabiliz, bi hiperplano gehiago defini daitezke, jatorrizkoarekiko paraleloak direnak eta sostengu-bektoreak diren instantziek eutsiko dituztenak (3.21. Irudiko puntu lerroak). Hiperplano horiek definitzen dira, horietako baten gainetik dagoen  $\vec{x}_i$  instantzia bakoitza klase batena izan dadin (hau da,  $\vec{y}_i = 1$ , 3.16. ekuazioan). Era berean, beste hiperplanoaren azpian dagoen edozein instantzia  $\vec{x}_i$  beste klasekoa dela ezartzen da ( $\vec{y}_i = -1$ , 3.17. ekuazioa).


$$\vec{\omega} \cdot \vec{x}_i - b \geq 1 \rightarrow \vec{y}_i = 1 \quad (3.16)$$

$$\vec{\omega} \cdot \vec{x}_i - b \leq -1 \rightarrow \vec{y}_i = -1 \quad (3.17)$$

Bi hiperplano horien arteko distantzia  $\frac{2}{\|\vec{\omega}\|}$  gisa defini daiteke. Beraz,  $\|\vec{\omega}\|$  minimizatzeak marjinak maximoak izatea egiten du. Optimizazio-problema hori ebazi ondoren, instantzia berri baten ezaugarriak sailkatzailean sartzen direnean,  $\vec{\omega} \cdot \vec{x}_i - b$ -tik lortutako emaitzaren ikurra izango da zehaztuko duena instantzia berria klase batekoala bestekoala den. Zeinua positiboa bada, orduan  $\vec{y}_i = 1$  eta, bestela,  $\vec{y}_i = -1$ .


Sailkapen-problema dimensio handiko espazio bati dagokionean, SVMek berdin jarduten dute: klase bateko instantziak beste taldekoetatik linealki bereizten saiatzen dira. Hori esanda, kasu batzuetan klaseak ezin dira linealki banandu. Kasu horietarako, zenbait konponbide daude, hala nola ertz bigunak zehaztea edo kernela eraldatzea. Ertz bigunak aplikatzea teknika simple bat da, hiperplanoa eta marjinak definitzean nolabaiteko tolerantzia ahalbidetzen duena, kasu kopuru mugatu bat txarto sailkatzea baimenduz (ikus 3.22. Irudia).

### 3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK



**3.22. Irudia.** Ertz bigunen aplikazioak klaseak linealki banatzea ahalbidetzen du errore txiki bat izatearen truke.

Bestalde, kernel eraldaketek datuak eraldatzean datza. Honela, matematikera giketa batzuk erabilita, linealki banatu ahal ez diren klaseen instantziak beste espazio berri batera eramatzen dira zeinean klaseak linealki banandu ahal diren (adibide grafiko bat 3.23. Irudian aurkeztu da). Instantzien distribuzioaren arabera, kernel eraldaketa ezberdinek soluzio hobeak edo okerragoak emango dituzte [47]: eraldaketa linealak, eraldaketa polinomikoak, eraldaketa erradiak...




**3.23. Irudia.** Kernel eraldaketei esker bi klaseen instantziak linealki bereiz daitezke.

#### Hurbileneko K bizilagunak (K-NN)

Algoritmo hauek instantzia batek lehenago sailkatutako instantziekiko duen hurbiltasunaren kalkuluan oinarritzen dira [48]. Antzekotasun-distantziak kalkulatu ondoren (normalean, distantzia euklidianoa), algoritmoek bozketa-prozesu bati ekiten diote. Bozketa horretan, instantzia berritik gertuen dauden klaseen artean, instantzia gehien dituen klasea hartuko da instantzia berriaren klasetzat.

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

Hala ere, instantzia guztiak ez dira kontuan hartzen, berritik hurbilen daudenak bakarrik.  $K$  parametroak zehazten du instantzia berritik hurbilen dauden zenbat instantzia hartuko diren kontuan bozketan.  $K$  parametro egokia aukeratzea oso garrantzitsua da, sailkapenaren emaitzean eragina izan dezakelako. Fenomeno horren adibide bat 3.24. Irudian ikus daiteke:  $K = 3$  aukeratuz gero sailkapen arrakastatsua lortuko da (irudiaren ezkerraldean);  $K = 5$  aukeratuz gero, ordea, okerreko sailkapen emaitza lortuko da (irudiaren eskuinaldean).




**3.24. Irudia.** Instantzia berriaren (izarra) klasea alda daiteke  $K$  parametroaren balioaren arabera.

Praktikotasunaren mesedetan, zenbait ikertzailek  $K = \sqrt{n}$  erabiltzea proposatzen dute, non  $n$  entrenamenduko instantzia guztien kopurua den. Beste ikertzaile batzuek “saiakuntza eta errore” prozesuan baliozketze gurutzatua era-biltzea proposatzen dute (geroago azalduko da 3.4.3. Azpiatalean). Hala ere, badaude aldaketak K-NN algoritmoan,  $K$  parametroko konfigurazio txarrek sortzen duten zaratarekiko erreaktibotasunari aurre egiten diotenak; esate baterako, pisu handiagoa ematen diete hurbilen dauden instantziei, urrunen daudenak eragin txikiagoa izan dezaten sailkapenean [49], [50].

#### Erabaki-zuhaitzak (DT)

DT-ak datuak sailkatzea ahalbidetzen duten fluxu-diagrama itxura duten egiturak dira. Hasierako nodotik, “erro-nodoa” deritzona, adar berriak ebaluazio-puntu batera bideratzen dira instantzien ezaugarri jakin baterako. Ezaugarriaren ebaluazioaren emaitzaren arabera, nodoa berriro adarkatuko da nodo gehia-goetara irekiz. Prozesu hau etengabe errepikatuko da azkenengo nodo batera iritsi arte. Instantziaren klasea erabakitzenten duten azken nodo horiei “hosto-nodo” deitzen zaie. Sustraitik hostoetarainoko zuhaitz baten antzeko adarkatutako egitura horretik hartzen dute izena algoritmo hauek: erabaki-zuhaitzak (DT, ingelesez decision trees). Kontzeptua argitzeko, 3.25. Irudian DT simple adierazi da, familia bateko pertsona batek familia bereko haur jaioberri batekin duen ahaidetasuna zehazten duena.

### 3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK



**3.25. Irudia.** Familia bateko haur jaioberri batek familia bereko beste pertsona batekin duen ahaidetasuna zehazteko DT egitura.

DT egitura baten indukzioa prozesu iteratiboa da. Hiru sarrera behar dira horretarako [51]: instantziak D datu-multzoa, entrenamenduko instantziak C klaseak eta adar-banaketaren metodoa. Ulergarritasunaren mesederako, adar-banaketaren oraindik ezin da azalduko. DT bat sortzeko iterazio-prozesuak 3. Algoritmoko urratsak ditu.

3. Algoritmoaren sasikodea behin eta berriz errepikatzen da, zuhaitza beherantz adarkatuz partizio bateko instantzia guztiak klase berekoak izan arte edo instantziak deskribatzeko ezaugarririk ez dagoenera arte. Gainera, aurre-kimaketa erabiltzen ez denean (aurrerago azalduko dugu), adarkatzea gelditu egiten da zatiketa-irizpide batek instantziarik gabeko partizio berri bat sortzen badu, hau da, partizio huts bat. Hori gertatzean, adar berriak baztertu egiten dira eta N nodoa aurreko zatiketan kasu gehien zituen klasetzat etiketatuko litzateke. Adarkatze-prozesu bat gelditzen denean, algoritmoa beste adar batera joaten da eta prozesu bera errepikatzen du adarkatzeko geratzen diren datuekin.

Orain arte, DT-en eraikuntza azaldu da. Hala ere, adar-banaketa metodoa azaldu gabe dago oraindik. Adar-banaketa metodoak datu multzoa modurik homogeneoenean zatitzeko aukera ematen duen ezaugarria aurkitzen du. Aurtzut ondoren, zatiketa-punturik onena aukertazen du eta datu-multzoa azpimultzo txikiagoetan banatzen du. Metodoak aldatzen dira erabiliko den zuhaitz-motaren arabera: ID3 zuhaitzek “Information Gain” metodoa erabiltzen dute, C4.5 zuhaitzek ‘Gain Ratio’ metodoa erabiltzen dute, CART zuhaitzek “Gini” indizea erabiltzen dute...

Azkenik, zuhaitzaren indukzioa amaitu ondoren, batzuetan adar-kopurua murritztu egin behar da, DTa sentikorregia baita zaratekiko eta anormaltasunekiko. Landareen analogiarekin jarraituz, prozesu honi indukzio osteko kimaketa esaten zaio. Kimkaeta normalean zuhaitzaren beheko adarretatik hasten da eta gorantza doa. Adar bat kimatu behar den edo ez erabakitzeko hainbat meto-

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

---

---

**Algorithm 3** Erabaki-zuhaitzen indukzio algoritmo.

---

```
1: while gelditzeko_irizpidea == FALSE do
2:   N nodo berri bat sortu geratzen diren D datu multzoarekin.
3:   if D-ko instantzia denak klase berekoak dira == TRUE then
4:     N nodoa "hosto-nodo" bezala ezarri, D-ko intantzien klasekoa;
5:     gelditzeko_irizpidea = TRUE;
6:   else
7:     if instantzienen ezaugarriak oraindik geratzen dira? == TRUE then
8:       Adarra banatzeko ezaugarri onena hartu eta horrekin D zatitu;
9:       Datu multzo berrietatik lehenago aukeratutako ezaugarria ezabatu;
10:      if D-tik ateratako datu multzo berriren bat hutsik dago? == TRUE
11:        then
12:          N nodoa "hosto-nodo" egin, D multzo originalean nagusi zen klas-
13:          sekoa;
14:          gelditzeko_irizpidea = TRUE;
15:        end if
16:      else
17:        N nodoa "hosto-nodo" egin, datuetan nagusi den klasekoa;
18:        gelditzeko_irizpidea = TRUE;
19:      end if
20:    end if
21:  end while
```

---

do daude. Adibidez, kostuen konplexutasuneko metodoek eta kimaketa-metodo ezkorrek zuhaitz originalaren errore-tasa kalkulatzen dute eta adarra "hosto-nodo" batekin ordezkatzuz gero lortuko zen errore-tasarekin konparatzen dute. Adarrak sortzen duen errorea handiagoa balitz orduan zuhaitza kimatuko litzateke. Bestela, zuhaitza dagoen bezala utziko litzateke. Halaber, zuhaitz bat eraikitzen den heinean kimatu daiteke, adarretan behera doan instantzien kopurua esanguratsua ez denean adarkatze prozesua geldiaraziz. Kimaketa mota horri aurre-kimaketa deritzo.

Amaitzeko, DT-ak gizakientzat ulerterrazak dira eta hori oso propietate interesgarria da. Beraz, DT-ak erraz eralda daitezke arauetan oinarritutako sailkatzaile bat izateko, adibidez, (1R) arau baterko algoritmo bat izateko. Gainera, ausazko baso-sailkatzaileak (RF, random forest) sor daitezke, korrelazio-rik gabeko DT multzo bat baino ez direna. Hauek, behin betiko sailkapen-emaitza orokorra ematen dute DT independente bakoitzaren irteerak erabiliz bozketa prozesu batean. Korrelaziorik gabeko DT hauek erraz entrena daitezke entrenamendu-datuak bootstrap metodoaren bidez aldatuz (hurrengo paragrafoetan azaldutako "bagging" metodoaren oso antzeko planteamendua). Horrela, DT-en desabantailako bat gainditu daiteke: datuen zaratarekiko sentikortasun handia izatea.

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

#### **Sailkatzaire-multzoak**

Berez sailkatzaire-mota espezifiko bat ez diren arren, sailkatzaire-multzoak sortzea metodo orokorra da sailkapenen eta iragarpeneren zehaztasuna hobetzeko. Sailkatzaire-multzoen metodoek proposatzen dutena sailkapena edo erregresioa egiteko hainbat eredu matematiko desberdin konbinatzea da. “Bagging” eta “boosting” metodoak aurki ditzakeg Sailkatzaire-multzoak ezagunenen artean [51].

“Bagging” metodoa bigarren aditu baten iritzia lortzearen antzeko printziopia oinarritzen da, bixita errealean arraroa ez dena. Adibidez, osasunarekin zerikusia duten arazoetan, ohikoa da pazienteek mediku bat baino gehiagorri bere iritziagatik galdeztzea eta gehien errepikatzen den iritzia ontzat hartzea. Beraz, “bagging” metodoak egiten duena sailkapen-eredu bat baino gehiago sortzea, ondoren irteerarik ohikoena aukeratzeko (ikus 4. algoritmoa). “Bagging”-ak mota bereko hainbat sailkatzaire entrenatzea eskatzen du, datu multzo original “bootstrap” metodoa erabiliz eraldatuz entramendu bakoitzerako (metodo hau 3.4.3. Azpiatlean azalduko da). Behin nahi beste eredu entrenatu direla, egitiketako dagoen gauza bakarra eredu denak sarrera berarekin elikatzea da, geroago bozketa prozesua egiteko.

---

#### **Algorithm 4** Bagging algoritmoa.

---

```
1: i=1;
2: while i < nahi diren eredu kopurua do
3:   D datu multzo berria sortu bootstrap metodoa erabiliz;
4:    $M_i$  eredu entrenatu sortutako D datu multzo berriarekin;
5:   i=i+1;
6: end while
7: M eredu denak erabili sarrerako instantzia sailkatzeko eta aukeratu gehien errepikatutako emaitza.
```

---

“Boosting”-a problema baten emaitzak hobetzeko beste teknika bat da, zenbait eredu erabiliz. Hala ere, “bagging”-ean ez bezala, “boosting” metodoek ez diete garrantzi bera ematen sailkatzaire guztiei, bazik eta haien errendimenduaren arabera hantzatzen dira: sailkatzaire onenaren erabakiak pisu handiagoa du btoa ematean. Gainera, “boosting” metodoek sarrerek duten pisua ere aldatzen dute sarrera hori sailkatzeko erraztasunaren arabera. Beste era batera esanda, sarrera bat txarto sailkatzen bada, haren pisua handitu egindo da etorkizunerako. Aldiz, behar bezala sailkatu bada, sarrera instantziaren pisua murriztu egiten da. Horrela, “boosting” metodoak garrantzi handiagoa ematen die instantzia zailenei, instantzia horiek sailkatzeko errendimendua hobetu dadin.

“Boosting” metodo ezagunenetako bat Adaboost metodoa da (Adaptive-Boosting esateko modu laburra) [52]. 5. algoritmoko pseudo-kodeak metodo hori laburtzen du klase bitarreko sailkapen baterako.

**Algorithm 5** Adaboost boosting algoritmoa.

---

```

1: i=1;
2: while i < nahi diren eredu kopurua do
3:    $\omega_i$  instantzien pisuak hasieratu  $\omega_i = 1/D$  bete dadin,  $D$  datu multzoaren
   tamaina izanik;
4:    $M_i$  eredu bat entrenatu “lagindu eta ordezkatu” metodoa erabiliz;
5:    $\mathcal{E}$  errore-tasa kalkulatu: txarto sailkatutako instantzien pisue batukaria;
6:   if  $\mathcal{E} > 0.5$  then
7:      $M_i$  eredua baztertu eta berriz hasi eredua entrenatzen 1. pausutik;
8:   else
9:     Pisuak eguneratu:  $\omega_{i-new} = \omega_i \cdot (\mathcal{E}/(1 - \mathcal{E}))$ 
10:  end if
11: Instantzien pisua normalizatu;
12: i=i+1;
13: end while
14:  $M$  eredu denak erabili sarrera berriak sailkatzeko, eredu bakoitzari  $\omega_i$  pisu
    bat emanez geroko bozketa erabiltzeko,  $\omega_i = \log \frac{1 - \mathcal{E}_{M_i}}{\mathcal{E}_{M_i}}$  izanik.

```

---

### 3.4.2. Gainbegiratu gabeko ikasketa

Gainbegiratutako ikasketa-algoritmoetan ez bezala, gainbegiratu gabeko ikasketa-algoritmoek ez dute instantzien klasea ezagutu beharrik eredu bat ikasteko. Horren ordez, datuen ezaugarrietatik ikasten dute, eta, ondorioz, kanpoko launtzarik gabe datuak taldekatzen dituzte. Beraz, datuen etiketatzea garestia edo oso motela denean bereziki erabilgarriak dira. Tesi honetan, K-means multzokatze-algoritmoa baino ez da azalduko, lan honetan erabili den gainbegiratu gabeko ikasketa-metodo bakarra izan baita.

Multzokatze-metodoen helburua datuen barruan antzekotasunak aurkitzea da, instantziak antzeko propietateak dituzten multzoetan bil daitezen, eta, aldi berean, beste multzo batzuen instantzien desberdinak diren propietateak izan ditzaten. Hala ere, algoritmoaren arabera, antzekotasuna hainbat era ezberdinan neur daiteke. Zehazki, dokumentu honek K-means multzokatze metodoan zentratuko da.

#### K-means

K-means algoritmoa multzokatze-metodo bat da, distantziak erabiltzen dituena instantziak multzo ezberdinatan taldekatzen. K-meansen kasuan,  $K$  parametroak datuak taldekatzean sortuko diren multzo kopurua adierazten du;  $K = 3$  bada, datu guztiak hiru multzo handitan bilduko dira, eta  $K = 5$  bada, beste bi kluster/multzo gehiago sortuko dira. Beraz,  $K$  parametro hori erabiltzaileak definitu behar du.

K-means algoritmoaren funtzionamendua simplea da:  $K$  multzoen zentroideak mugitzen ditu, zentroide bakotizeko taldean dauden instantzia denen eta

### 3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK

---

zentroide beraren arteko distantziak minimizatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, algoritmoak  $K$  zentroideen kokapena hasieratuko du, datu multzoan dau- den eta zoriz aukeratutako  $K$  instantzien kordenatuak erabiliz. Horren ondoren, prozesu iteratiboa hasiko da (ikus 6. algoritmoa  $n$  dimentsioko kasu baterako): lehenik, instantzia guztiak hurbilen dagoen zentroideko multzoari egokitzen zaie; gero, zentroideak birkalkulatu egiten dira, multzo horretako instantzia guztiekin duten zentroiderako distantzia euklidianoaren errore karratuen batura minimi- nazteko. Algoritmoaren zenbakizko adibide bat aurki daiteke [53]n. Prozesu hau errepikatu egiten da instantzia bakar bat ere ez denean multzo batetik bestera aldatzen edo algoritmoa  $N_{lim}$  iterazio egitera heldtzen denera arte.

Kontuan izan behar da K-means multzokatze-metodoaren emaitza, era na- barmen batean, zentroideen hasierako posizioaren mende dagoela. Horrela, lite- keena da multzokatzearen emaitza desberdinak lortzea, hasierako zentroidearen posizioak aldatzen badira. Beraz, ohikoa da K-means algoritmoa zenbait al- diz exekutatzea eta, emaitza denak konparatuta, errendimendu onena ematen duen bertsioa aukeratztea. Hala ere, horrek konputazio eta denbora-kostuak handitzen ditu. Bestalde, teknika batzuk arazo horri aurre egiten saiatzen dira, hasieratze-parametro onenak hautatuz [54].

---

#### **Algorithm 6** K-means multzokatze algoritmoa.

---

- 1:  $K$  emanda,  $K$  zentroideak hasieratu zoriz aukeratutako  $K$  instantzien posi- zioak erabiliz;
  - 2:  $n_{iterazio} = 1$ ;
  - 3: **while** gelditzeko\_irizpidea == FALSE **do**
  - 4:    $n$  ezaugarri dituzten  $i$  instantzien eta  $k$  zentroideen arteko distantziak kalkulatu:
- $$distantzia_{ik} = \sqrt{(x_{1k} - x_{1i})^2 + (x_{2k} - x_{2i})^2 + \cdots + (x_{nk} - x_{ni})^2}$$
- 5:    $i$  instantzia  $distantzia_{ik}$  distantzia minimoa duen multzoari egokitu;
  - 6:   **if** (instantziak\_taldez\_aldatu == FALSE) **or** ( $n_{iterazio} > N_{lim}$ ) **then**
  - 7:     gelditzeko\_irizpidea = TRUE;
  - 8:     **break**;
  - 9:   **end if**
  - 10:    $k$  multzoko zentroidaren koordenatu berriak kalkulatu ( $k$  multzo barruan dauden  $q$  instantzien kopuruaren araberakoa izango da):

$$(x_{1k}, x_{2k}, \dots, x_{nk}) = \left( \sum_{i=1}^q \frac{x_{1i}}{q}, \sum_{i=1}^q \frac{x_{2i}}{q}, \dots, \sum_{i=1}^q \frac{x_{ni}}{q} \right)$$

- 11:    $n_{iterazio} = n_{iterazio} + 1$ ;
  - 12: **end while**
-

## 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

### **3.4.3. Balioztatzeko datuen zatiketa partizioetan**

Sailkatzailearen portaera ebaluatu behar denean, esan bezala, garrantzitsua da entrenamenduko datuak aparte uztea eta erabili gabe mantendu diren testarako datuak soilik erabiltzea. Beraz, testaren datu multzoa izango da algoritmoen errore eta arrakasta tasak zehaztuko dituena. Azpiatal honek datuak partiziotan zatizeko erabiltzen diren metodoetako batzuk aurkeztuko ditu, algoritmoen portaera kalkulatzeko balio dutenak: hold-out metodoa, bootstrap aukeraketa metodoa eta K-iterazioidun baliozketze gurutzatua.

#### **Kanpoan utzi metodoa**

Hold-out metodoa (kanpoan utzi) datuak banatzeko metodorik simpleena da. Datuak aleatorioki bi zatitan banatzen dira, entrenatzeko eta testatzeko partizioetan. Normalean, datuen 2/3 eredu entrenatzeko erabiltzen dira eta gainerako 1/3 errendimendua testatzeko.

Hold-out metodoak badu aldaketa zehatz bat ausazko azpilaginketa deritzona eta zeinean hold-out prozesua  $k$  aldiz errepikatzen den. Gero,  $k$  datu-multzo ezberdin erabiltzen dira entrenamendurako eta, ondorioen, eredu horiek  $k$  aldiz testatuko dira errendimenduaren neurriak ateratzeko. Azkenik, batezbesteko errendimenduaren balioa kalkulatuko da aurreko  $k$  errendimendu horien balioak erabiltzen dira.

#### **Bootstrap aukeraketa metodoa**

Bootstrap metodoa “lagindu eta ordezkatu” planteamenduan oinarritzen da. Printzipioa simplea da; iteratiboki, datu-baseko instantzia bat hautatzen da entrenamendu-multzoa sortzeko. Hala ere, hautatutako instantzia ez da datu-multzotik ezabatzen, baizik eta hurrengo iterazioan berriro hautagaia izateko mantenduko da. Prozesua hau datu-multzoan dauden instantzia kopurua adina aldiz errepikatzeari 0.632 bootstrap aukeraketa izena ematen zaio (hurrengo bi paragrafoetan azalduko dute).

Argi dago kasu batzuk entrenamendurako partizioan errepikatuko direla eta beste batzuk, ordea, ez direla horretarako erabiliko. Instantzia guztiekin entrenamendurako hautatuak izateko probabilitate bera dute beti, hau da,  $P_{entrenamendu} = 1/n$ ,  $n$  datu-basearen tamaina izanik. Aitzitik, entrenamendurako hautatua ez izateko probabilitatea (edo, bestela esanda, testarako hautatua izateko aukera)  $P_{testa} = 1 - 1/n$  da. Lehenago esan bezala, prozesua errepikatzen bada  $n$  aldiz, orduan, testako partizioan egoteko instantzia baten probabilitatea  $P_{testa} = (1 - 1/n)^n$  izango da, 0.3678-ra hurbiltzen da. Eta, ondorioz,  $P_{entrenamendu} = 1 - P_{testa} = 0.632$  izango da.

Azkenik, errore-tasa zehazteko beharrezkoa izango da algoritmoak izango duen entrenamenduko partizioaren probabilitateekiko alborapena konpentsatzea. Horretarako, entrenamenduaren eta testaren errore-tasak kontrako partizioare dagokion probabilitatearekin biderkatu behar dira [55]. Zenbakiz, honela irudi-katuko litzateke:  $\mathcal{E} = \mathcal{E}_{entrenamendu} \cdot 0.3678 + \mathcal{E}_{testa} \cdot 0.632$ .

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

#### **K-iterazioidun baliozkotze gurutzatua**

Tesi horretan datuak banatzeko azalduko den azken metodoa K-iterazioidun baliozkotze gurutzatuko metodoa da, K-fold cross-validation deritzona. Metodo honen bidez, datu multzo bat tamaina bereko  $K$  zatieta banatzen da, instantzi bakoitza partizio bakar batean egongo direlarik eskluisiboko. Gero, partitio guztietatik bat bakarrik testa egiteko gordeko da eta gainontzeko  $K - 1$  partizioak ereduak entrenatzeko erabiliko dira. Prozesu hau  $K$  aldiz errepikatuko da, modu sekuentzialean testa egiteko partizioa aldatzen: lehenengo exekuzioan 1. partizioa gordeko da, bigarrenean 2. partizioa, eta horrela hurrenez hurren, amaitu arte. Azkenik, ausazko azpilaginketa egiteko egiten den bezala, errendimendua kalkulatzeko, algoritmoaren errendimenduko emaitzak  $K$  errepikapenetatik lortutako emaitza guztien batezbestekoa eginez kalkulatzen da.

Normalean,  $K$ -k 10 edo hortik hurbil dagoen beste zenbaki bat (adibidez, 5 edo 20) izateko ezartzen da. Metodo hau erabiltzean,  $K$  ezartzeaz gain, datuak estratifikatzea garrantzitsua da. Horrek esan nahi du partizio guztiak antzeko instantzia kopuru bat izan behar dutela datu multzoko klase bakoitzerako. Bestela, ereduak klase baten alde joera izateko arriskua lego ke. K-iterazioidun baliozkotze gurutzatuari esker, entrenamendua egiteko datuen %90 erabil daiteke. Dena den, beste metodoekin alderatuta, konputazio-kostu handiagokoa da.

Azkenik, K-fold baliozkotze gurutzatuaren konfiguraziorik muturrekoena “leave-one-out baliozkotze gurutzatua” bezala ezagutzen da. Horretan, testa egiteko instantzia bakarra gordetzen da. Konputazionalki oso garestia da, ia instantzia denak entrenamendurako erabiltzen baitira. Horregatik, baliteke oso datu multzo handietan erabiltzea ezinezkoa izatea. Hala ere, datu-multzo txikiagoak oso eraginkorra izan daiteke.

#### **3.4.4. Portaera ebaluatzeko neurriak**

Orain arte, zatiketa-metodo batzuk azaldu dira. Azalpenetan, portaera edo errendimendua neurtzeko metrikak kalkulatzeko modua aldatu egin behar dela aipatu da. Hala ere, errendimendu-metrika horiek ez dira oraindik azaldu. Aziatal horretan, problema jakin baterako sailkatzaile desberdinak zein ongi funtzionatzen duten konparatzeko erabil daitezkeen portaera ebaluatzeko metrika erabilienak aurkeztuko dira. Errendimenduaren metrika gehienak kalkulatzeko hurrengo indize hauek erabiltzen dira, sailkapeneko klase bat erreferentziatzat hartzen dutenak:

- **Benetako positiboak (true positives, TP):** erreferentzia klaserako behar bezala sailkatu diren instantziak.
- **Positibo faltsuak (false positives, FP):** erreferentzia klasekoak balira bezala sailkatu diren instantziak dira, baina benetan beste klase batekoak direnak.

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

---

- **Benetako negatiboak (true negatives, TN):** errefentzia klasea ez den beste klase bati zuzen egokitutako instantziak dira, hau da, erreferentzia klasekoak ez zirela ondo asmatutako kopurua.
- **Negatibo faltsuak (false negatives, FN):** erreferentzia klasekoak ez den beste klaseri oker egokitutako instantzien kopurua, horiek benetan erreferentzia klasekoak zirelako.

#### Zehaztasuna and errore-tasa

Errendimenduaren bi metrika hauek elkarren osagarri dira. Zehaztasunak ondo sailkatutako instantzien ehunekoa adierazten duen bitartean, errore-tasak gaizki sailkatutako kasuen ehunekoa adierazten du. Beraz, bi adierazleak [0-1] artean definitzen dira. Zehaztasunak eta errore-tasak, hurrenez hurren, 3.18. eta 3.19. adierazpenen bidez deskribatzen dira.

$$acc(zehaztasuna) = \frac{TP + TN}{TP + TN + FP + FN} = \frac{T}{T + F} \quad (3.18)$$

$$err \text{ or } \mathcal{E} = \frac{FP + FN}{TP + TN + FP + FN} = \frac{F}{T + F} = 1 - acc \quad (3.19)$$

#### Nahaste-matrizeak

Nahaste-matrizea taula bat da, non klase guztiak ilarako eta zutaberako goiburu gisa jartzen baitira. Han, ilara bakoitzeko klase bat harzen da erreferentziatza analisirako eta zutabeek sailkatzaileak adierazitako klasea adierazten dute. Beraz, gelaxkek erreferentziako instantzien zein kopuru zein klaseri egokitu zaizkion adierazki dute. 3.4. Taularen adibideari erreparatuz gero, konfusio-matrizeek nola funtzionatzen duten uler daiteke.

**3.4. Taula.** 330 instantzia dituen datu multzo baten nahaste-matrizea.  
110 instantzia daude klase bakoitzeko.


	1. klasea	2. klasea	3. klasea
1. klasea	100	10	0
2. klasea	5	85	20
3. klasea	10	20	80

3.4. Taulako nahaste-matrizeari erreparatuta, ikus daiteke erabili zen sailkatzaileak emaitzarik onenak lortu zituela lehen klaserako, 100 instantzia zuzen sailkatu baitziren eta 10 bakarrik sailkatu baitziren gaizki. Bestalde, sailkapen oker kopuru handienarekin, sailkatzailearentzat hirugarren klasea izan zen identifikatzeko klaserik zailena.

### 3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK

Sailkatzailearen errendimendu orokorra nolakoa izan zen ondo ikustearaz gain, nahaste-matrizek erabilgarriak dira okerreko sailkapenek sortzen dituzten kostuekin lotuta sailkatzaile bat baino gehiagoren artean konparaketa egiteko. Batzuetan, klase bat oker klasifikatzea beste bat txarto klasifikatzea baino askoz okerragoa da [42]. Horren adibide garbia minbiziaren diagnostikoan dago, non positibo faltsu (FP) batek sortzen duen galera negatibo faltsu (FN) batek sortzen duenarekin alderatuta oso txikia den. FN batek minbizia dagoela baina ez dela detektatu adierazten du, eta horrek ondorio hilgarriak izan ditzake gai-xoarentzat, detekzio azkarra kritikoa baita minbiziaren tratamendurako. Bestalde, FP batek ez luke izango horren ondorio kritikoa izango. Izan ere, FP batek pazientea minbizia duela adierazki luke, baina ondorengo diagnosi-probek baztertu egingo lukete hipotesi faltsuak. Beraz, nahiz eta bi diagnostiko-akatsek ondorio kaltegarriak dituzten, FN-ren kostu pertsonala askoz handiagoa da.

Egia esan, giza bizitza bakar baten kostua handiegia da izatez. Hala ere, aukerarik garestiena hain argia ez denean, ez dago oso argi aplikazio baterako zein sailkatzaile izango den egokiena. Kasu horietan, gaizki sailkatutako kasuen guztizkoa biderkatu egiten da sailkapen-mota bakoitzaren kostuarekin, hots, kostu txikiagoa duten erroreen sailkatzailea aukeratzeko. Hori 3.26. Irudiko diagramaren adibidean ikus daiteke. Han ikusi datieke lehenengo sailkatzailea erabiltzea aukerarik onena dela, nahiz eta bigarren sailkatzaileak baino akats gehiago egiten dituen.



**3.26. Irudia.** 2. sailkatzaileak akats gutxiago dituen arren, akatsari lotutako kostuek erakusten dute aukerarik onena 1. sailkatzailea erabiltzea dela.

### 3.4. IKASKETA AUTOMATIKOA

---

#### **Doitasuna, estaldura, espezifikotasuna eta F-neurriak**

Azaldu berri dugunez, batzuetan garrantzitsua da egiten akatsei sakonago begiratze. Alde horretatik, zehaztasun eta errore-tasa indizeak engainagariak izan daitezke, 3.26. Irudiko adibidean gertatu zen bezala. Hori dela eta, errendimendu-adierazleen multzo berri bat diseinatu zen, bakoitza sailkapenaren zati jakin batean zentratzen delarik.

- **Doitasuna (precision, pr):** positibotzat sailkatutako instantzia guztien artean, benetako positiboen ehunekoa adierazten du.

$$pr = \frac{TP}{TP + FP} \quad (3.20)$$

- **Estaldura (recall, re):** datu-multzoan klase positiboa duten kasu guztien artetik, benetako positiboen ehunekoa da. Sailkatzailaileak kasu positiboa detektatzeko duen gaitasuna adierazten du.

$$re = \frac{TP}{TP + FN} \quad (3.21)$$

- **Espesifikotasuna (specificity, sp):** datu-multzoan klase negatiboa duten kasu guztien artetik, benetako negatiboen ehunekoa da. Sailkatzailaileak alarma faltsuak saihesteko duen gaitasuna adierazten du.

$$sp = \frac{TN}{TN + FP} \quad (3.22)$$

- **F<sub>β</sub>-neurriak:** doitasunaren eta estalduraren arteko oreka-neurria ematen duen indizea da. Bietako bat altua bada baina bestea ez bada, F<sub>β</sub>-neurria txikia izango da. Normalean, doitasunari eta estaldurari garrantzi bera emateko *beta* = 1 ezartzen da, F<sub>1</sub> indizea lortuz. Beharren arabera alda daiteke hori: *beta* handitzen bada, orduan doitasunak garrantzia hartzen du, eta kontrakoa gertatzen da txikiagotzen denean.

$$F_{\beta} = (1 + \beta^2) \cdot \frac{pr \cdot re}{(pr \cdot \beta^2) + re} \quad (3.23)$$

F neurriak bereziki erabilgarriak dira doitasunak eta estaldurak informazio nahasia eman dezaketenean. Adibidez,  $pr = 1$  eta  $re = 0.7$  badira, pentsa daiteke algoritmoa oso ona dela, baina  $F_1 = 0.8235$  izango zen. Horrek adieraziko luke algoritmoa ez dela doitasunari begiratzerakoan pentsatu ahal zen bezain ona.

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

#### **3.4.5. Sarri erabilitako beste erremintak**

Azpiatal honek ikasketa automatikoarekin zerikusia duten zereginetan erabili diren beste bi erreminta aurkeztuko dira, beste edozein azpiataletan guztiz sartu ezin direnak. Lehenengo tresna Wilcoxon testa da, emaitzen esanahi estatistikoa aztertzeko erabiltzen dena. Azpiatal honetan aurkeztutako bigarren teknika korelazioan oinarritutako ezaugarrien aukeraketa metodoa da (correlation-based feature selection, ingelessez). Bigarren teknika hori ez da izatez ikaskuntza automatikoko algoritmo bat, baina askotan sailkapen-lana sinplifikatzeko erabiltzen da, sailkatzaileei beren lana egiten lagunduz.

##### **Wilcoxon testa**

Wilcoxon proba test estatistiko ez-parametrikoa bat da [56], eta baliagarria da lagin parekatuen arteko erlaziona aztertzeko. Beraz, bi sailkatzailek lortutako emaitze artean alde estatistiko adierazgaririk dagoen zehazteko erabil daiteke. Proba honen abantailako bat da, ez-parametrikoa izanik, konparatuko diren laginiek ez dutela inongo distribuzio estatistikorik izan behar. Hurrengo paragrafoetan azalduko den arren, ordenagailurako aplikazio matematiko askok testa automatikoki kalkulatzen duten funtzioak dituzte konparatu beharreko laginen emanda. Adibidez, “signrank(x,y)” funtzioa Matlab®-en edo “wilcox.test(x,y, paired=TRUE)” R-n.

$D_1$  eta  $D_2$  datu-multzoen arteako Wilcoxonen testa kalkulatzeko, lehenengo bi datu-multzoen laginak binaka parekatu behar dira. Gero, lagin bikote bakotzen arteko differentzia absolutua kalkulatzen da kenketa honekin:  $|X_{D_2i} - X_{D_1i}|$ . Urrats honetan, differentzia absolutua 0 bada, emaitza hori ematen duen bikotea baztertu egin behar da, konparatu beharreko datuen tamaina murriztu.

Hurrengo urratsa baztertu ez diren differentzia absolutu guztiak txikitik handira ordenatzea da. Differentzia absolutu bera ematen duen bikote bat baino gehiago badago, orduan differentzia hori ematen duten bikote denak posizio berean sailkatuko lirateke. Horien posizioa beteko lituzketen posizio guztien batez bestekoa izango litzateke. Adibidez, 4., 5. eta 6. posizioak izango zitzuzten hiru balio errepikakor baleude, horiek guztiak 5. posizioan sailkatuko lirateke. Azalpenerako, bikote bakoitzak okupatzen duen posizioari  $R_i$  deituko zaio.

Azkenik, sailkapena ezagututa, test estatistikoa kalkula daiteke 3.24. ekua-zioa erabiliz, eta, horren ostean, p-balioak kalkula daitezke ere. Alde horretatik, 0,05etik beherako p-balioek adierazten dute emaitzak aleatorioak izateko %5 baino probabilitate txikiagoa dagoela. Hortaz, hau betetzean, emaitzen arteko ezberdintasunak estatistikoki esanguratsuak direla esan daiteke.

$$W = \sum_{i=1}^N zeinua(X_{D_2i} - X_{D_1i}) \cdot R_i \quad (3.24)$$

### 3.5. BURMUIN-KONPUTAGAILU INTERFAZEAK (BCI)

#### **Korrelazioan oinarritutako ezaugarrien aukeraketa**

Ez da arraroa datu multzoek zaratatsua edo erredundantea den informazioa izatea. Egoera hauetan ikasketa automatikoko algoritmoentzat zailagoa iza-ten da baliozko informazioa ateratzea. Are gehiago, datu zaratatsu eta erren-dundatea izateak sailkatzailaren errendimenduan eragin handia izan dezake. Erabaki-zuhaitzak honen adibide argiak dira, datuak ezaugarri esanguratsue-naren arabera zatitzen dituztelako. Hortaz, algoritmo batzuk erabiltzeko oso garrantzitsua da datuak ondo garbitzea sailkapena egin baino lehen, hau da, ezaugarri garrantzitsuenak aukeratzea. Izan ere, zaraten eta erredundantzi-en aurka sendoak diren algoritmoei ere laguntzen die ezaugarrien aukeraketak eta honi esker azkarrago funtzionatzea lor dezakete. Beraz, ondoriozta daiteke ara-zoaren dimensioaren tamaina txikitzeak kasurik gehienetan onuragarria izaten dela.

Tesis honen lana garatu zenea, ezaugarrien aukeraketa korrelazioan oinarri-tutako ezaugarrien aukeraketa metodoaren bidez egiten zen (correlation-based feature selection, CFS), [57]n aurkeztua. Metodo honek  $S$  ezaugarri azpimul-tzoen  $Meritua_s$  meritua ebaluatzen du klase baten detedktatzeko duen erabil-garritasunaren arabera. Era berean, ezaugarri horien erredundantziaren neurria ematen du ere. Ikuspegi honen arabera,  $Meritua_s$  balio handiena lortuko duen ezaugarri azpimultzoa esanguratsuena izango da.  $Meritua_s$  balioa 3.25. ekua-zioa erabiliz kalkulatzen da, non  $k$  azpimultzoan dauden ezaguarri kopurua esan nahi duen eta  $r_{cf}$  eta  $r_{ff}$ -k, hurrenez hurren, klaseko batezbesteko eta klaseen arteko batezbesteko korrelazioak adierazten dituzten.

$$Meritua_s = \frac{k \cdot r_{cf}}{\sqrt{k + k \cdot (k - 1) \cdot r_{ff}}} \quad (3.25)$$

[57]n esan bezala, planteamendu honen aplikazioak “best-first” (onena lehe-nago) bilaketa estrategia heuristikoan oinarritzen da. Lehenik eta behin, me-toodoak hutsik dagoen  $S$  ezaugarri azpimultzo batekin hasiko da eta ezaugarri berriak banan-banan ebaluatuko eta gehituko ditu. Era honetan, garrantzitusa izaten ziurtatzea algoritmoak aukera posible denak ez dituela aztertuko. Hau egiteko, algoritmoari gelditzeko esaten zaio ikusten denean hobekuntzarik ez dela lortzen jarraian guztiz hedatutako bost azpimultzo aztertu ondoren.

## **3.5. Burmuin-konputagailu interfazeak (BCI)**

Burmuin-konputagailu interfaze (BCI, ingelezko brain-computer interface-tik) sistemak buurmunekeko aktibitate elektrikoa lagindu eta prozesatzen duten sis-tema horiek dira, erabiltzaileak bere ingurunearekin elkareragiteko (adibidez, ordenagailu edo eragingailu robotiko bat kontrolazeko). Beraz, BCI aplikazioei esker erabiltzaileek muskuluak erabiltzea sahiestu dezakete azkenengo eragin-gailu hori kontrolatzeko, behar berezi zehatz batzuk behar dituzten erabiltzai-leentzat bereziki interesgarria dena. EEG informazioa jasotzeko kaskoaz gain,

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

BCI sistema denek ikasketa automatiko algoritmoak erabiltzen dituzte EEG- etan ematen diren patroiak erabiltzaileak nahi duen kontrol egoeraren batekin erlazionatuta dagoen ezartzeko. Hortaz, BCI sistemak ikertzen dituen disiplina 3.4. Atalean aurkeztutako ikasketa automatikoen teknikei oso era estuan dago lotuta.

Atal honen bidez, disertazioak BCI sistemak oinarritzen diren printzipio ohi-koenetako batzuk azalduko ditu: gertaerei lotutako potentzialak (event-related potentials, ERP), bisualki eragindako potentzial egonkorak (steady-state visually evoked potentials, SSVEP) eta gertaerei lotutako desinkronizazio/sinkronizazioan oinarritutako imajinazio motorreko sistemak (event-related desynchronisation/synchronisation, ERD/ERS). Sistema mota horiek 3.5.1., 3.5.2. eta 3.5.3. Azpiataletan azalduko dira, hurrenez hurren.

#### **3.5.1. Gertaerei lotutako potentzialak (ERP)**

BCI sisteem hauek erabiltzailea gertakari zehatz bat detektatzeko kontzentru- tuta izatean oinarritzen dira. Gertakari hori gertatzeko zain dagoen bitartean, erabiltzailearen burmuineko aktibitatea erlatiboki egonkor mantenduko da. De- na den, bilatutako gertakaria ematen denean, gertaerari lotutako burmuine- ko aldeko EEG seinaleetan alterazio nabaria emango da. Adibidez, gertakaria soinu-estimulu bat bada, erabiltzaileak soinu zehatz hori entzutean alterazio bat emango da bere burmuineko entzumen-kortexean (burmuineko bi alboetara kokatzen dena). Era horretan, zenbait estimulu mota ezbedin erabili daitezke ERP-ak sortzeko: bisualak, ukimenarekin lotutakoak, entzumenezkoak, elektri- koak...


ERP-ei dagokienez, EEG-eten sortuko diren alterazioak aukeratutako esti- muluaren ezaugarrien araberakoak izango dira. Hala izanda era, denek ezaug- garri bat dute komuneari: beti izango da latentzia denbora bat estimulua so- matzen den momentuaren eta EEG alterazioa sortzen den momentuen artean. Honek esan nahi du denbora tarte bat egongo dela estimula somatzen denetik EEG alterazioan piko maximo edo minimoa sortzen denera arte. Beraz, EEG alterazioaren morfologia ezagutzea oso garrantzisua da estimulua somatu den zehaztuko duen ikasketa automatikoko algoritmo bat diseinatzerakoan.

ERP-ak izendatzeko badago akordio orokorra. Hasieran, “P” eta “N” letrak erabiltzen ziren EEG tentsioaren desbiderapenaren seinua positiboa edo negati- boa zen adierazteko. Letra horri lotuta, zenbaki bat erabiltzen da ere EEG alterazioa emateko behar den denbora adierazteko (milisegundutan). Adibidez, tentsio desbiderapena negatiboa bada eta 200ms behar izan baditu agertzeko, orduan ERP horren izena N200 izango zen. Dena den, denbora hauek erre- ferentzia moduan hartzen dira, ERP alterazioak agertzeko denborak ez direlako deterministik eta pixkat aldatu daitezkelako [58]. ERP guztien artean, P300-ak literaturan gehien aztertu direnetarikoen artean dago, letreiatzeko aplikazioan (speller application) gertatzen den bezala.

Leteiatzeko BCI aplikazioa, bere izenak adierazten duen moduan, erabiltzaileak hitzak sortzeko letrak banan-banan idaztea ahalbidetzen duen sistema da [59]. Normalean, letrk eta zenbakiak pantaila batean adierazten dira, matrize

### 3.5. BURMUIN-KONPUTAGAILU INTERFAZEAK (BCI)

formatu batean zeinetan matrize gelaxka bakoitzaren barrua letra edo zenbakia bakarra dagoen [60]. Orduan, aplikazioa exekutatzen den bitartean, BCI sistemak letrak eta zenbakiak nabarmenduko ditu era kontrolatuan (ikus 3.27. Irudia, [61]tik ateratakoa). Hau gertatzen den bitartean, erabiltzaileak idatzi nahi duen letra edo zenbakiai bakarrik egongo da begira. Honi esker, BCI sistemak P300 ERP bat detektatuko du erabiltzaileak nahi duen letra nabamentzen dela somatzen duenean, eta hor detektatzean, BCI sistemak hizki hori pantailan idatziko du.



**3.27. Irudia.** P300 potentzialak detektatu daitezke nahi diren letrak nabarmendu direla somatzean.


#### 3.5.2. Bisualki eragindako potentzial egonkorra (SSVEP)

Erabiltzaileak etengabe dir-dir egiten duen argi iturri bati begiratzen dionean burmuinean potentzial elektrikoak eragiten dira ere. Hau gertatzean, ikusmenari lotutako kortexeko eremuetan posible da erresonantzia bat detektatzea argiak dir-dir egiten duen frekuentziako aktibitate elektrikoan, kortex okzipitalean eta kortex parietaleko atzekaldean [62], alegia. Erresontanzia hau egonkor egongo da (teknikaren izenak adierazten duen moduan) erabiltzaileak dir-dir egiten duen argiari begiratzeari uzten dionera arte. Hortaz, pantaila bateko alde ezberdinatan frekuentzia ezberdinatan dir-dir egiten duten puntuak jartzen badira, orduan EEG erresonantzia ezberinak sor daitezke eta hauen detekzioa erabil daiteke erabiltzaileak nahi dituen agindu komandoak bidaltzeko. 3.28. Irudian ikusi daiteke nola dir-dir egiten duen frekuentziak potentzial ezberdinak eragiten dituen EEG kanal ezberdinatan (irudia [63]etik atera da).

Sistema mota hauen alderik onenetariko bat da erresonantziak erraz detekta daitezkela Fourierren transformatua erabiliz eta geroago potentzia espektroko dentsitatea kalkulatuz. Ere, erabiltzaileak agindu komando asko izatea per-

### **3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA, IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

mititzen dute sistema hauek. Azken finean, frekuentzia ezberdin asko detekta daitezke, [64]n egin zen bezala, 12 klase ezberdin detektatu zirela. Bestalde, EEG kaskoa eramatea inbaditzalea ez dela kontsideratzen den arren, dir-dir egiten duen argi bati begiratzea nahiko metodo oldakorra da eta erabiltzailea erraz nekatu daiteke.



**3.28. Irudia.** Gorriz markatutako 12.5Hz-ko frekuentzia dir-dir egiten duen estimuluaren frekuentziari dagokio.

#### **3.5.3. ERD/ERS imajinazio motorreko sistemak**

Tesi honetan azalduko den azkenengo BCI metodo edo aplikazioa gertaerei lotutako desinkronizazioan (event-related desynchronisation, ERD) eta gertaerei lotutako sinkronizazioan (event-related synchronisation, ERS) oinarritutako imajinazio motorreko sistemak dira. ERD/ERS parametroak adierazten du frekuentzia banda batean ematen den potentzialen handipena edo murriketa gertakari jakin bat somatzean [58], [65]. ERD/ERS imajinazio motorreko BCI sistemen kasuan, alteratzen direnak  $\beta$  eta  $\mu$  bandak dira. 3.2.4. Azpiatalean azaldu den bezala, bi banda hauek deusetatzen dira gorputzeko atal bat mugitzean [66]. Dena den, hau ez da soilik gorputze atal bat mugitzean, baizik eta atal bat mugitzeari buruz pentsatzen denean ere. Hori dela eta, BCI sistema mota honek izen hori hartzen du.

Fenomeno honi esker, ikasketa automatikoko algoritmoak gorputzeko atal zehatz baten mugimenduari lotutako EEG patroiak detektatzeko gai dira. Beraz, burmuineko zonalde zehatzetan gorputzeko zein ataleko mugimendua kontrola-

### 3.5. BURMUIN-KONPUTAGAILU INTERFAZEAK (BCI)

tzen den jakitea oso garrantzitsua da. Adibidez, C3 kanala (ezker hemisferioan) nabarmen deuseztatzen da eskuineko besoa mugitu nahi dela pentsatzean. Bestalde, C3 egonokor mantentzen den arren, eskuineko hemisferioko C4 kanala deuseztatuko da ezkerreko besoa mugitzeari buruz pentsatzean. Hortaz, gorputzaren alde bateko gorputzadarra burmuineko kontrako aldean kontrolatzen dira. Dena dela, eskuei eta besoei lotutako patroiak detektatzea erraza den arren, aipatu behar da gauza berdina hankekin egitea askoz zailagoa dela. Hau honela da hanka bakoitza kontrolatzen duen kortexen eremuak elkarrekiko oso gertu daudelako eta, hori dela eta, jasotako EEG seinaleak oso antzerakoak dira eta zaila da bien artean ezberdintzea.

BCI metodologia mota honen erabilera oso interesgarria da, ERP eta SSVEP sistemetan ez bezala, ez dagoelako kanpoko estimuluen beharrik; erabiltzailea bera da EEG patroiak sortzen dituena irudimena erabiliz. Ordea, entrenamendu denbora luzeak eskatzen ditu, ez bakarrik ikasketa automatikoko sistema entrenatzeko baizi eta erabiltzailea bera entrenatzeko ere (gorputzadar bat mugitzeari buruz pentsatzea ez da oso gauza normala). Hortaz, sistemaren portaera erabiltzailearen esperientziaren eraginpean egongo da. Dagoeneko, BCI sistema mota hauek neuor-errehabilitazio aplikazioetan erabiltzen dira, 3.29. Irudian erakusten den bezala ([1]tik atera dena), non apoplexia bat izan zuen paziente bat bere gorputzadarren kontrola berreskuratzeko errehabilitazioa egiten ari den.



**3.29. Irudia.** ERD/ERS imajinazio motorreko BCI sistemak neuro-errehabilitaziorako erabili ahal dira galdu tako gorputzadarren gaineko kontrola berreskuratzeko.

Tesi honek BCI sistema mota hauen inguruko informazioa 6. Kapituluan sakonduko du. Bertan, tesi honek egindako imajinazio motorrari lotutako ekanpena aurkeztuko da.

**3. KAPITULUA - SEINALE FISIOLOGIKOAK, LOGIKA LAUSOA,  
IKASKETA AUTOMATIKOA ETA BCI SISTEMAK**

---

## III. Atala

# Ekarpenak



## **4. Kapitulua**

# **Estres-maila era jarraian zenbatesteko ekarpenak**

### **4.1. Sarrera**

Gaur egungo gizarteav sentimenduetan, emozioetan eta, orokorrean, ongizate psikologikoan gero eta interesatago dago. Ondorioz, emozioak eta fenomeno psikologiko zehatz batzuen detekzia, sailkapena eta ebaluazioa aztertzen duten ikerketen kopurua nabarne hazi da azkenengo hamarkadetan. Honi lotuta, kapitulu honek seinale fisiologikoen prozesamenduaren bitarteko estres-mailaren estimazioari egindako ekarpenean aurkeztuko du.

Hasiera puntu bezala, ikerketa taldeak, lehenago, estresaren adierazgarriak diren bat-bateko aldaketa fisiologikoen detekzioaren eta neurketaren inguruan lan egin zuen [67]. Dena den, lehenengo lan honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Aldapa eta GICI ikerketa taldeen arteko kolaborazioan egin zena, solik bat-bateko aldaketak aztertzen ziren. Hortaz, taldeak pentsatu zuen interesarria izango zela soluzio teknologiko bat diseinatzea, konputazio-adimentsuko teknikak erabiliz, era jarraitu batean estresaren mailako estimazioa emateko. Kapitulu honetan aurkeztuko den lana, tesi honen hasierako faseari dagokionez, GICI ikerketa taldeko Irigoyen dokorearen gidaritzapean egin zen. GICI eta Aldapa ikerketa taldeen arteko kolaborazio honi esker, tesi honen idazlea Aldapa taldeko kide izatera heldu zen.

Kapituluaren egiturari dagokionez, 4.2. Atalak ikerketaren testuinguruari eta ekarpenarekin zerikusia duten literaturako lanei buruzko berrikustea emango dio irakurleari. Ondoren, 4.3. Atalak seinale fisiologikoak jasotzeko jarraitu zen protokolo esperimentalak aurkeztuko du. Horren ostean, 4.4. Atalak geroago logika lausoko sisteman sarrera bezala erabili ziren ezaugarriak erautzeko erabili ziren seinale-prozesamendu teknikak azalduko ditu, eta, jarraian, 4.5. Atalak estres-maila neurtzeko erabili zen logika lausoko sistema azalduko du. Buktatzeko, 4.6. Atalak lanaren emaitzak aurkeztuko ditu eta laburpen orokor bat emango da 4.7. Atalean.

## 4.2. Testuingurua eta erlazionatutako lanak

Konputazio afektiboa interdisziplinarioa den adarra da, konputazio zientzien, psikologiaren eta zientzia kognitiboen teknikak eta azterketak konbinatzen dituena. Psikologoek antzeko ikerketetan lan egin zuten arren, konputazio afektiboa-ren ikuskera modernoa [68]tik sortu zen. Konputazio afektiboa barne hartzen duen eremua oso zabala da, emozioen eta sentimenduen neurketa ikertzen duen atala izanik tesi honetarako intersgarria dena.

Emozioen eta sentimenduen ikerketa ez da berria den ikerketa adarra. Dena den, oraindik ere ikerlarien arreta harrapatzen jarraitzen du, giza-adimenaren inguruaren oraindik alderdi asko baitaude argitzeke. Honela izanda, badira ikerketa asko eguneroko bizitzan emozioek duten eragina aztertzen dutenak. Ikerketa batzuk giza-jarreren azterketan zentratzen dira [69]. Beste batzuek emozioak nola induzitu ahal diren ikertzen dute [70]. Hala ere, badago adar bat, “borroka edo ihesa” (“fight or flight”) teoriatik abiatuta [71], arreta aldaketa fisiologiken eta estresa sentitzearen arteko erlazioetan jarri duena [72, 73]. Azkenengo adar honi dagokio tesi honek aurkezten duen lehenengo ekarpena.

2. Kapituluan azaldu den bezala, “borroka edo ihesa” egoerek Nerbio Sistema Autonomaren (SNS, ingeleseko Sympathetic Nervous System hitzetatik) aktibazioak eragiten dituzte eta hauek gorputzaren erreakzioak sortzen dituzte: arnasketa erritmoa azeleratzen da oxigeno gehiago muskuluetara heltzeko, izerdiaren jariaketa handitzen da, begi-niniak zabaldu egiten dira [74, 75]... Ondorioz, aldaketa hauek sentsoreen bidez neurtu ahal direnez, ikerketa askok arreta jarri dute aldaketa fisiologiko hauetan. Ikerketa horien helburua aldaketa fisiologiko horiek emozio, sentimendu eta sentsazioak sentitzearekin duten lotura azterzeko, adibidez, estresaren sentitzearekin duten lotura. Ikertzaile batzuek sentsore intrusiboak erabiltzen dituzten bitartean, begi-ninien tamaina edo aupegiko espresioak jasotzeako kamerak bezala [76], beste ikertzaile batzuek arropan integratu ahal diren sentsore ez hain intrusiboak erabiltzen saitzen dira (edo batere intrusiboak ez direnak) [77, 78].

Ongizate fisikoa, fisiologikoa eta psikologikoa erlazionatuta daudela argi da goen arren, erlazio hau nola funtzionatzen den ez dago guztiz argi oraindik [79]. Beraz, ikertzaile askok konputazio-adimentsuko teknika ezberdinak erabili dituzte aldaketa fisiologikoaren eta estresaren arteko erlazioa ezartzen laguntzeko, ikasketa automatikoa edo logika lausoa bezalakoak [80–83]. Ikerketa lerro honi jarraituz, kapitulu honetan azaldutako lanak estres-mailaren estimazio jarraitua emateko [84]n aurkeztutako logika lausoko sistemaren hobekuntza aurkezten du, bihotz-erritmoa (HR) eta aktibilitate elektrodermikoa (EDA) sistemaren sarre-ratzat zituen. Sistemaaren hobekuntzak, gehien bat, [84]en erabilitako seinale fisiologikoen prozesamendu tekniken hobekuntzetatik eta sistemari sarrera seinale berriak gehitzetik dator: ECG-ko R pikoen detekzioa [85–88], EDA seinalearen deskonposaketa, arnasketa-seinaleran (RESP) eransketa, beste batzuen artean.

### 4.3. Protokolo esperimentalak


Gizakiak parte izango diren protokolo esperimental baten diseinua egiteko zenbait alderdi hartu behar dira kontuan, ikuspegia legal, etiko eta teknikoei lotutakoak. Aspektu legalei eta etikoei dagokienez, partaideen pribatasun eskubideak errespetatzen direla ziuratzea guztiz beharrezkoa da. Hortaz, gizakiak esperimenturen parte direnean, partaideen identitatea anonimoa izango dela ziurtauko duen moduan gordetzea praktika orokorra da [89]. Gainera, partaideak esperimentuaren prozedimentuari buruz informatuak izan behar dira eta horren ostean dokumentu bat bete behar dute zeinean esperimentuan parte hartza onartu dutela adierazten duten. Esperimentu honetan 166 pertsonek partu hartu zuten, denak Euskal Herriko Unibertsitatik eterriak (125 gizonetakoak eta 41 emakumezkoak). Esperimentuko populazioaren adinak 19 eta 45 urteen bitartekoak ziren, batezbesteko adina 22,8 urtekoa eta desbiderapen estandarra 3,1 urtekoa izanik.

Legalak aparte, ikertzaileek kontuan hartu beharreko aspektu teknikoak besoste eratako arazoekin lotuta dago, sentsoreen kokapen egokia aukeratzearkin, esperimentuaren faseen orden egokia aukeratzearkin edo nahi diren partaideen erreakzioak sortzeko erabiltzen diren jardueren aukeraketarekin, adibidez. Literaturan egoera psikologiko eta emozional zehatza induitzeko diseinu esperimentalaren inguruko zembait lan aurki daitezke, [90] edo [91] modukoak.

Lehenago, [67] -n, ikerketa taldeak atal honetan aurkeztutako protokolo esperimentalak erabili zuen. Protokoloaren helburua partaideengen estresa induitztea da eta horretarako 3D egurrezko puzzle bat 10 minututan egiteko eskatu zitzaien. Gainera, parteideek 2 minutuko bideo erlaxagarria ikusi zuten puzzlea egiten hasi baino lehen eta puzzlea egiteko denboraren ostean. Partaideak egoera basal batera eramateko erabili zen bideo hau, partaideen aldagai fisiologikoen balioak tarte normal batean izan zitezen geroago kontrolerako informazio gisa erabiltzeko. Puntu honetatik aurrera hurrengo nomenklatura motza erabiliko da hiru fase horiei erreferentzia egitejo: RS (“relaxing state” hitz ingelesetik) bideo erlaxagarrien faseei esango zaie eta SS (“stressful state”) deituko zaio puzzlea eraikitzeko faseari.


Esperimentu osoan zehar partaideen EDA, ECG eta RESP seinaleak jaso ziren Biopac MP36® ekipamendua erabiliz, 1000Hz-tan lagintzen. Puzzlea eraikitzeak eskuen trebezia eskatzen duenez, EDA jasotzeko sentsoreak partaidearen trebetasun gutxieneko eskuan kokatu ziren, erdiko hatzamarrean eta hatz erakuslean. Era honetan, EDA jasotzeko sentsoreek ez zuten era nabari batean partaideen errendimenduan eraginik izango eta, era berean, elektrodoek molestia txiki batzuk sortuko zituzten estresa sortzeko lagungarriak izango zirenak. Bestalde, ECG sentsoreak partaidearen bularrean kokatu ziren eta RESP seinalea bularrean kokaturiko banda batekin jaso zen. 4.1. Irudiak sentsore bakoitzaren kokapenaren diagrama erakusten du (ezkerraldean) eta, era berean, jasotako seinaleen adibideak irudikatzen ditu fase bakoitzeko hasiera eta amaieraren markak emanez (eskuinaldean).

#### 4. KAPITULUA - ESTRES-MAILAREN ZENBATESPEN JARRAITUA



**4.1. Irudia.** Sentsoreen kokapenaren eskema eta jasotako seinaleen adibideak.

Konpondu beharreko beste arazo tekniko bat seinaleetan artefaktuak agertea da. 3D puzzlea eraikitzeak partaidea mugitza eskatzen dueneaz, jasotako seinaleak ziurrenik artefaktuak izango dituzte, mugimenduekin elektrodoek azalerkin kontaktua galdu ahal dutelako. Gainera, eletrodoen gela denborarekin lehortu egiten da eta horrek sentsorea eta azalaren arteko konduktibilitatean eragina du. Honen ondorioz, batzuetan ECG-en amplitudea murriztu egiten da eta R pikoen detekzioa zailagoa egiten da, seinalearen eta zarataren arteko erratioa txikitzen baita. Fenomeno hauen adibide batzuk 4.2. Irudian aurkeztu dira, esperimentuan jasotako seinaleak irudikatuz. 4.4. Atalean proposatutako prozesamendu teknikek arazo hauei soluzioa emango diete.



**4.2. Irudia.** Zarata eta artefaktuak ager daitezke ECG seinaleetan.

## 4.4. Seinale fisiologikoen prozesamendua

Esandako moduan, proposatutako estres-maila estimatzeko metodoak ECG, EDA eta RESP seinaleetatik ateratako ezaugarriak erabiltzen ditu. Atal honiek horiek erauzteko erabili diren prozesamendu teknikak aurkeztuko ditu.


Lehenik eta behin, 4.4.1. Azpiatalak ECG seinalearen prozesamendua aurkeztuko du, 4.2. Irudiko moduko zaraten eragina ekiditzeko R pikoen detekzio metodo hobetuaren ekarpena aurkeztuz. Geroago, RESP seinalearen tratamendua azalduko da 4.4.2. Azpiatalean, non analisi frekuentzialaren eta estatistikoaren konbinazioa egitea proposatzen den. Bukatzeko, EDA-tik ateratako ezaugarrien erauzketa 4.4.3. Azpiatalean azalduko da.

### 4.4.1. ECG-a prozesatzen: R pikoen detekzio hobetua

#### Medianako iragazkia

Base-lerro mugikorra duen seinalea izatea normala da ECG-ak jasotzean. Arazo hau konpontzeko zenbait irizpide daude, “high-pass” iragazkiak erabiliztea modukoak. Dena den, iragazki eraginkorrik diseinatzea konputazio kostu handiak ditu edo seinaleren fasea alteratzen da. Horregatik, aplikatzeko oso erreza den iragazki ez lineala izanda, [85]n medianako iragazkia erabiltzea proposatu zen base-lerroen desbiderapenak ezabatzeko.


Jasotako seinaleen analisi empirikoa egin ondore, taldeak 100ms-ko medianako fitroa erabiltzea erabaki zuen. Iragazki honen tamaina egokia da base-lerroaren desbiderapenak kentzeko, hauek normalean denbora hori baino gutxiago irauten dutelako. Honen adibidea 4.3. Irudian ikusi daiteke, zeinean seinale originala eta filtratua bata bestearen gainean grafikatu diren.



**4.3. Irudia.** Base-lerroko desbiderapenak ongi ezabatu dira 100ms-ko mediana iragazkia erabiliz.

### Wavelet iragazketa

Base-lerroko desbideraketetaz gain, ohikoa da zarata elektrikoa biltzea bioseinaleak jasotzen direnean. Adibidez, gailu komertzialek 50Hz-eko hozka-iragazkia erabiltzeko aukera ematen dute sare elektrikotik datorren edozein zarata kentzeko. Hala ere, elektrodoen eta azalaren arteko kontaktua oso ona ez boda, baliteke sentsoreek jasotzen duten zarata maiztasun-banda jakin batean kontzentratutik ez egotea. Iragazte tradizionalak huts egiten duenean, wavelet analisi diskretua zarata kentzeko hautagai egokia dela dirudi [92]. 4.4. Irudian, wavelet-eten oinarritutako deskonposaketa eta berreraikuntza nola egiten diren azaltzen duen diagrama ageri da.



**4.4. Irudia.** Wavelet deskonposaketaren and berreraikuntzaren eskema.

Wavelet deskonposaketa 4.4. Irudiko ezkerraldean ageri da, eta, ikus daitekeenez, seinalea bi maiztasun-bandatan banatzean datza, bata goi-maiztasuneko informazioari dagokiona eta bestea behe-maiztasuneko informazioari dagokiona. Bi maiztasun-banden banaketa  $H$  eta  $L$  deskonposizio-iragazkiak erabiliz lortzen da ( $H$  goi-maiztasunetarako,  $L$  behe-maiztasunetarako). Horren ondoren, ondoriozko seinale horiek jatorrizko laginketa-maiztasunaren erdira azpiolagindu behar dira. Azpilaginketa-etapa horretan lortzen dira  $A$  eta  $D$  koefizienteak:  $A$  koefizienteek seinalearen  $[0, F_s/2]$  tarteko informazioa daramate, eta  $D$  koefizienteek  $[F_s/2, F_s]$  bandako informazioa daramate. Uhinen deskonposaketa nahi adina aldiz errepika daiteke, eta, horri esker, jatorrizko seinalearen informazio guztia tamaina konprimituko datu-multzo txikiagoetan lor daiteke.

Bestalde, wavelet berreraikuntza diskretua deskonposizioa alderantzkatzea eta kontrako norabidean itzultzea bezain simplea da. Hala, azpilaginketa egin beharrean,  $A$  eta  $D$  koefizienteen lagin kopurua bikoiztu behar da, sortu berri diren lagenen balioak zero izanik. Ondoren, lortutako seinaleek  $H'$  eta  $L'$  berreraikitze-iragazkietatik igaro behar dute. Iragazki horiek zero balio berri horiek tratatuko dituzte. Azkenik, hurrengo deskonposizio-mailaren  $A$  koefizienteak lortzeko  $H'$  eta  $L'$ -ren irteerak gehitu behar dira.


Hala, wavelet deskonposizio diskretua seinaleak prozesatzeko oso tresna indartsua da, ikertzaileei informazio-banda egokian soilik arreta jartzeko aukera

#### 4.4. SEINALE FISIOLOGIKOEN PROZESAMENDUA

ematen baitie. Hori erraz egin daiteke A edo D koefiziente jakin batzuen balio guztiei zero balioa emanez. Hori egiten bada, orduan, seinalea berreraikitzean koefiziente horietako informazio guztia ez da kontuan hartuko, eta, horren ondorioz, askoz ere seinale garbiagoa lortuko da. Gainera, propietate horri esker, wavelet-ak asko erabili dira konpresio-soluzio gisa datu handiak gordetzeko.

Hala ere, puntu honetara iritsita, oraindik ez dago argi nola  $H$ ,  $L$ ,  $H'$  eta  $L'$  iragazkiak ezartzen diren. Galdera horren erantzuna ez da hutsala, iragazki horien implementazioa analisirako aukeratu den wavelet-aren araberakoa baita. Wavelet-familia bat baino gehiago daude, eta ez da harritzeko wavelet desberdinek lana behar bezala egiteko gai izatea. Zentzu horretan, seinale bat wavelet batekin deskomposatzen bada eta, geroago, wavelet bera erabiliz guztiz bererraiki badaiteke, wavelet hori lan horretarako egokitzat har daiteke. Gainera, gutxi gorabeherako beste arau on bat da informazio garrantzitsuarekin ikusizko antzekotasuna duen wavelet bat aukeratzea.

Horrekin jarraitez, Coiflet familiako wavelet-ak [93] QRS konplexuen nahiko antzekoak dira, eta, beraz, berreraikuntza inolako galerarik gabe egin daitekeela egiaztu ondoren, zarata iragazteko hautatu zen. Beraz, base-lerroko desbiderapenik gabeko ECG seinaleak Coiflet wavelet-ak erabiliz deskomposatu ziren. Ondoren, berreraikuntzarako D koefizienteei kasurik ez egitea erabaki zen, zarata gutxiagoko ECGaren hurbilketa lortzeko. Kontuan hartu behar da prozesu horrek informazio pixka baten galera eragiten duela. Hala ere, EKGaren morfologia nahiko ondo mantentzen da eta seinalearen eta zarataren arteko erlazioa jatorrizko seinalearena baino hobea da. Horren adibide bat 4.5. Irudian ageri da, non seinalea sei aldiz deskomposatu eta A koefizienteak soilik erabiliz berreraiki zen.




**4.5. Irudia.** Zarataren iragazketa wavelet-en 6. mailako hurbilketarekin.

### Pikoen detekzioa

Zarata kendu ondoren, HR kalkulatzeko hurrengo urratsa R pikoak detektatzea da. Horretarako, ECG uhinaren hurbilketaren balio negatibo guztiak ezabatzea proposatzen da (edo R gailurrak negatiboak diren ezohiko kasu horietan soilik zati negatiboa).


Horren ondoren, R piko nabarmenenak bilatu besterik ez da egin behar eta, hori egiteko, seinalea ekortu behar da. ECG seinalea oso dinamikoa ez denez, lan honek aurreko hiru RR tarteen batezbesteko denbora kalkulatzea proposatzen du. Gero, batezbesteko balio hori hurrengo R pikoaren posizioa estimatzeko era-bil daiteke. Orduan, piko detektatzea erraza da RR tartearen %20-an aurrera eta atzera seinalea ekortuz pikorik handiena bilatzen. Hau egitean komeni da prozesua behar bezala osatu dela egiaztatzea, wavelet hurbilketan detektatutako R pikoen posizioak eta jatorrizko ECG seinalearenak bata bestearen gainean jarriaz prozesua behar bezala buritu dela egiazatzeko (ikus Irudia: 4.6. Irudia).



**4.6. Irudia.** Detektatutako R pikoen posizioak wavelet hurbilketaren eta ECG seinale originalaren R pikoen pozioekin bat datoz.

Azkenik, R pikoen detekzioa behar bezala egin bada, oso erraza da HR seinalea kalkulatzea 3.1. ekuazioa aplikatuz. Lortzen den HR seinale hori metodo tradizionalagoekin kalkulatutakoak baino sendoagoa izango da. Adibidez, 4.2. Irudiko seinalerako, proposatutako algoritmoak HR kalkulu sendoagoa ematen du esperimentuan bioseinaleak jasotzeko erabilitako Biopac MP36® gailuak emandakoarekin alderatuz gero (ikus 4.7. Irudia).

## 4.4. SEINALE FISIOLOGIKOEN PROZESAMENDUA



**4.7. Irudia.** Ekipamendu komertzialak artefaktuen eragin nabaria izan dezaketen bitartean, proposatutako algoritmoak HR seinalearen kalkulu sendoa ematen du.

### 4.4.2. RESP seinalearen prozesamendua

3.2.3. Azpiatalean adierazten den bezala, pertsona erlaxatu baten RESP seinalea estresatua sentitzen denean pertsona batena baino harmonikoagoa izatea espero daiteke. SNS-a aktibatzen denean birikak azkarrago mugiarazten ditu, oxigenoa odolera transferitzean organismoak behar dituen kantitateak ase daitezen. Beraz, pertsona baten estres-maila ebaluatzeko informazioa lor daiteke RESP seinaleari prozesamendu-teknika egokiak aplikatzuz. Lan honek frekuentzia-analisiaren teknikak eta kalkulu estatistikoak konbinatzea proposatzen du, informazio hori 4.5. Atalean geroago aurkeztuko den logika lausoko sisteman sarrera-ezaugarri gisa erabiltzeko.


#### RESP seinaleen frekuentzia-analisia

Normalean, Fourier transformatuak seinale baten maiztasun-espektroa ikusteko erabiltzen dira. Horrela, seinale bat zein harmonikoa den egiazta daiteke. Hala ere, askotan erresoluzio handia lortzeko lagin asko hartu behar dira, eta hori nahiko garestia izan daiteke konputazionalki. Gainera, Fourier-en ohi-ko eraldaketek  $[0, Fs/2]$  Hz-eko maiztasun-tartean ematen dute informazioa, eta, seinale fisiologikoen kasuan, normalean  $F_s/2$  maiztasun horren ingurutik informazio gutxi atera daiteke.

Beraz, lan honek proposatzen du RESP-aren maiztasun-kontzentrazioa aztertzea, hau da, seinalea zein harmonikoa den, maiztasun desberdinak uhin sinusoidal hutsekin korrelazioan jartzea. Hori egitean, arreta guztia maiztasun-banda interesgarrian soilik jar daiteke. Beraz, subjektu bakoitzarentzat, behin bakarrik kalkulatu behar da seinalearen espektroa fenomeno fisiologiko gehienak dauden maiztasun-bandaren mugak jakiteko. Horren adibide bat 4.8. Irudian

#### 4. KAPITULUA - ESTRES-MAILAREN ZENBATESPEN JARRAITUA


ikus daiteke.



**4.8. Irudia.** RESP seinale bate frekuentzia-espektroa.

Zenbait esperimentuko partaideren RESP seinaleen espektroak analizatu ondoren, ondoriozta daiteke [0-0,5]Hz maiztasun-tartea bai RESP seinale erlaxatuaren zein estresatuen informazioa duela. Horregatik erabaki zen korrelazioa lortzea RESP seinaleen eta uhin guztiz sinusoidalaren artean, 0,01Hz-etik 0,5Hz-etara doaztenak, 0,01Hz-eko aldakuntza pausua erabiliz. Korrelazio horiek kalkulatzeko, hainbat leihotamaina erabili ziren., estresari buruzko informazioa ateratzeko leihotamainarik egokiena zein den jakiteko. Aztertu ziren leihotamainak 20s, 40s eta 60s izan ziren, guzientan 10s-ko mugimendu pausua erabiliz. Korrelazio horien emaitza 4.9. Irudian ikus daiteke. Irudi horretan, goiko aldean RESP seinalearen adibide bat marraztu da, eta, horren azpian, koloremapa bat erabili da leihotamaina desberdinatarako.

#### 4.4. SEINALE FISIOLOGIKOEN PROZESAMENDUA



**4.9. Irudia.** RESP seinalaren eta guztiz sinusoidalak diren seinaleen arteko korrelazioen emaitzak 20s, 40s eta 60s-ko lehio tamainak erabiliz.


#### Analisi estatistikoa eta seinalearen leunketa

4.9. Irudian ikusten denez, RESP-aren maiztasun-kontzentrazioa aldatu egiten da egoera erlaxagarria izatetik estresante izatera pasatzen denean. Kapitulu honetan aurkeztutako lanak proposatu zuen maiztasun-korrelazioaren balioen desbideratze estandarra erabiltzea estres-maila era jarraituan ebaluatzen duen logika lausoko sistemaren sarrera-ezaugarri gisa.

Ikuspegi horri jarraituz, desbideratze estandarra kalkulatzea proposatu zen

#### 4. KAPITULUA - ESTRES-MAILAREN ZENBATESPEN JARRAITUA


leiho mugikorreko estrategiari jarraituz. Hau egitean, korrelazio-balioen desbideratze estandarra handiagoa izan zen subjektua erlaxatuta sentitzen zenean. Horrek zentzua du; izan ere, erlaxatuta sentitzan, begiratutako maiztasun guztiarako korrelazio-balioak oso txikiak dira, maiztasun nagusi batean izan ezik, oso korrelazionatuta dagoena. Hala izanda, batezbesteko balioa puntu horietako gehienetatik nahiko urrun egongo da. Bestalde, egoera estresagarriean, korrelazio-balioak uniformeago banatzen dira, eta, horregatik, balio horiek batez-besteko baliotik hurbilago egongo. Hortaz, desbideratze estandarra txikiagoa da erlaxazio-egoerekin alderatuta. Kontuan hartuta nahiko arraro dirudiela, 4.10. Irudiak pertsona beraren bi kasuen adibide bat irudikatzen du grafikoki.



**4.10. Irudia.** RESP seinalearen eta uhin sinusoidalen arteko korrelazio-balioak eta horien parametro estatistikoak, bi egoeretako analisi lehi batan.


Kontzeptu hori ulertu ondoren, RESP eta seinalee sinusoidalen arteko korrelazio-balioen desbideratze estandarraren bilakaera ere marraztu daiteke. 4.11. Irudian ikus daitekeenez, desbideratze estandarrak balio handiagoak lortzen ditu esperimentuaren zati erlaxagarriean. Gainera, ikus daiteke desbiderapen estandarra txikiagoa dela esperimentuaren erdian (estres-zatian).

#### 4.4. SEINALE FISIOLOGIKOEN PROZESAMENDUA



**4.11. Irudia.** Goiko zatia: parte-hartzaille baten RESP seinalea. Beheko zatia: korrelazio-balioen desbideratze estandarra.

